

**LORRATZ ELKARTEA**  
GIZARTE HEZIKETA LANAK

# **SORALUZEKO**

## **HAUR ETA NERABEEN**

### **BEHARRREN AZTERKETA**

**(2018ko UZTAILEAN)**

#### **EGILEAK:**

- **HEZITZAILEAK:**
  - Maider Urbieta Loyola
  - Oier Gabiria Lizarralde
- **KOORDINATZAILEA:**
  - Arantxa Zabaleta Imaz

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>3 orr.</b>
<b>2. AZTERKETA-LANAREN METODOLOGIA</b>	<b>4 orr.</b>
<b>3. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK, BEHARRAK ETA JOERA SOZIALAK</b>	<b>7 orr.</b>
<b>3.1. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDE-MARKOA</b>	<b>7 orr.</b>
<b>3.2. HAUR ETA NERABEEN EZAUGARRI EBOLUTIBOA</b>	<b>9 orr.</b>
<b>3.3. HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO BEHARRAK</b>	<b>11 orr.</b>
<b>3.4. AZKEN URTEOTAKO JOERA SOZIALAK</b>	<b>15 orr.</b>
<b>4. SORALUZeko DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK ETA HAUR ETA NERABEEN EGOERA</b>	<b>17 orr.</b>
<b>4.1. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA</b>	<b>17 orr.</b>
<b>4.2. SORALUZeko HAUR ETA NERABEEN EGOERA, BEHARREN ARABERA</b>	<b>21 orr.</b>
<b>4.2.1. PREMIA FISIKOAK</b>	<b>21 orr.</b>
<b>4.2.2. SEGURTASUNA</b>	<b>24 orr.</b>
<b>4.2.3. PREMIA EMOZIONALAK</b>	<b>27 orr.</b>
<b>4.2.4. GIZARTE PREMIAK</b>	<b>29 orr.</b>
<b>4.2.5. PREMIA KOGNITIBOAK</b>	<b>31 orr.</b>
<b>4.2.6. PREMIA BEREZIAK</b>	<b>33 orr.</b>
<b>4.3. SORALUZeko ZERBITZU ETA BALIABIDEAK 0-16 URTEKO ADIN TXIKIKOENTZAT ETA BEREN FAMILIENTZAT</b>	<b>34 orr.</b>
<b>4.3.1. OSASUN BALIABIDEAK</b>	<b>34 orr.</b>
<b>4.3.2. HEZKUNTZA BALIABIDEAK</b>	<b>35 orr.</b>
<b>4.3.3. AISIALDI ETA KULTUR ESKAINTZA</b>	<b>36 orr.</b>
<b>4.3.4. KIROL BALIABIDEAK / ELKARTEAK</b>	<b>39 orr.</b>
<b>4.3.5. BERDINTASUN EGITASMOAK</b>	<b>40 orr.</b>
<b>4.3.6. SORALUZE, HERRI HEZITZAILEA</b>	<b>41 orr.</b>
<b>5. ANTZEKO ERREALITATE SOZIODEMOGRAFIKOA DUEN HERRIA: ORDIZIA, HIRI HEZITZAILEA</b>	<b>43 orr.</b>
<b>6. BEHARREN AZTERKETAREN ONDORIOAK</b>	<b>46 orr.</b>
<b>7. ORIENTABIDEAK SORALUZeko UDALARENTZAT</b>	<b>53 orr.</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>57 orr.</b>

## **1. SARRERA**

Soraluzeko Udaleko Osasunaren, Gizarte Ongizatearen eta Immigrazioaren Batzordeak, Udaleko Haurren eta Gazteen Batzordearekin elkarlanean, "haur eta nerabeen beharren azterketa" egitea erabaki du. Udalaren helburua da azterketan identifikatutako indargune eta hutsuneetan oinarrituz, haur eta nerabeen beharrak asetzeko egokien izan daitezkeen politikak definitzea.

Horretarako, Lorratz Elkarteak kontratatu du 2018ko martxotik uztaile bitartean prozesu parte-hartzaile bat egiteko. Horren bitartez herriko haur eta nerabeen eta beraien garapen eta heziketan parte hartzen duten norbanako, profesional eta gizarte-eragileen ekarpen eta iritziak jaso dira: familia, hezitzaile, Udal Teknikari, osasun eta hezkuntza arloko langile, etab.-enak.

Txosten honetan, Soraluzeko haur eta nerabeen beharren azterketaren prozesua nolakoa izan den, zein behar identifikatu diren, eta horien ondorioz Lorratz Elkarteak Soraluzeko Udalari zein orientabide proposatzen dizkion azalduko da, pausoz pauso.

## 2. AZTERKETA-LANAREN METODOLOGIA

Soraluzeko haur eta nerabeen beharrak ezagutzeko, lau fasetan bereizitako prozesua gauzatu da.

### 1. FASEA: MARKO TEORIKOAREKIKO GERTURATZEA

Azterketa lan honen hasieran 0-16 urteko haur eta nerabeekin lotura duten esparru anitzekoinformazioa jaso eta aztertu da. Honakoak dira landuriko esparruak:

- Haurren eskubide eta betebeharrekin loturiko marko juridikoa, maila handienetik txikienera: Munduan, Estatuan, Autonomia Erkidegoan zein Probintzian.
- Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen sistema: Gaztematika.
- Haur eta nerabeen Ezaugarri Ebolutiboak
- Haur eta nerabeen Oinarrizko Beharrak
- Soraluzeko datu soziodemografikoak: Udaleko sail ezberdinen laguntzaz, herriko haur, nerabe eta familien hainbat datu soziodemografiko aztertu ahal izan dira.
- Haur eta nerabeen ikuspegia eta beharrak kontuan hartuz diseinatu den proiektua: Soraluzeko *Herrixak Hezi* hezkuntza proiektua.
- Antzeko errealitate soziodemografikoa duen herrian, Ordizian, garatzen diren proiektu soziohezitzaileak.

### 2. FASEA: AZTERKETAREN DISEINUA ETA LANDA LANAREN GARAPENA

Soraluzeko 4-16 urte bitarteko 454 **haur eta nerabeekin aurrez aurreko saioak** egin dira ikastetxeetan. Horiek gogo onez erantzun diete hezitzaileek proposatutako galdera eta dinamikei. 0-3 urte bitarteko haurren beharrak guraso eta profesionaleri galdetuta ezagutu dira.

**606 galdetegi helarazi zaizkie familiei**, eta idatziz erantzuteko zailtasunak dituzten gurasoei,

aurrez aurre erantzuteko aukera ere eman zaie. Erantzuna txikia izan da: %29,7koa (180 galdetegi), horietatik 6 familiatako gurasoek erantzun dute galdetegia hezitzaileen laguntzaz. Batez ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoen artean izan da erantzun txikia (bidalitako 133 galdetegietatik, 20 erantzun jaso dira, hau da, %15,04). Aipatu behar da erantzun duten gurasoen perfil nagusia honako hau dela: etxeko guraso guztiak landunak dira (bi gurasoen kasuan biak, eta guraso bakarraren kasuan, bat), eskolatutako seme-alabekin eta galdetegia gaztelaniaz erantzun dute.

Bestalde, galdetegiak bidali zaizkie haur eta nerabeekin lan egiten duten **8 elkarteri**: Mendi Taldea, Soroluzeko Pilota Elkartea, Soroluze Futbol Taldea, Ukaldi Judo Kluba, Soroluzeko Musika Eskola, Krabelin Margo Eskola, Urrats Dantza Taldea, Beti Prest Elkartea. Horietatik 4k erantzun dute.

#### **Egindako elkarrizketak honako hauek izan dira:**

- Udal Teknikariak: *Haurrak eta Gazteak, Kultura, Hizkuntza Politikak eta Hezkuntza Sail*etako Teknikaria; *Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigratio* Teknikaria; Parekidetasun Teknikaria; *Kirolak eta Kirolegia* Saileko Teknikaria; Hezkuntza Proiektuko Arduraduna; Udaltzainburua.

- Ordezkeri Politikoak: Alkatea (batzorde hauen burua: Kontuak eta Ogasuna; Garapen Ekonomikoa, Industria eta Enplegua; Pertsonala; Hirigintza), eta batzorde hauen burua: Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Inmigratioa; parekidetasuna; haurrak eta gazteak.

- Haur eta nerabeentzat dauden Udal Zerbitzuetako profesionalak: Udal Liburutegiko Arduraduna, Ludoteka eta Gaztelekuko hezitzaileak eta koordinatzailea

- Osasun zerbitzuetako profesionalak: Herriko emagina; pediatra eta familia-medikua eta beren erizainak. Eibarko Osasun Mental Zentroko gizarte langilea eta haur-psikologoa.

- Heziketa zentroetako profesionalak: Soroluzeko Haurreskolako hezitzaileak eta koordinatzailea, "Plaentxi" Herri ikastetxeko eta Soroluzeko BHI ikastetxeko zuzendaritza-taldea eta irakasleen klaustroa.

- Atxolin eta Keixeta Guraso Elkarreerako ordezkeriak

- Korner Morea talde feministako ordezkeri bat

- Gurutze Agirre: Herriko hainbat haur eta nerabeei eskola-errefortzua ematen dien pedagogo, eta ADAHIGI elkarteko kidea (Gipuzkoako Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen Elkarte)
- Familia esku-hartzeetako profesionalak: hezitzailea eta terapeuta.
- Bailarako Caritaseko arduraduna
- Ordiziako Inmigrazio Teknikaria

### **3. FASEA: EMAITZEN AZTERKETA**

Lehenengo bi faseetan jasotako informazioa aztertu eta haurren eta nerabeen beharren ondorioak atera dira fase honetan. Amaitzeko, behar hauei erantzuna emateko zenbait orientabide proposatzen zaizkio Udalari.

### **4. FASEA: TXOSTENAREN ERAKETA**

Azterketaren prozesuaren inguruko informazioa, ateratako ondorioak eta horiei erantzuteko proposatzen diren orientazioak jasoko dituen txostena idatzi da.

### **3. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK, BEHARRAK ETA JOERA SOZIALAK**

#### **3.1. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDE-MARKOA**

1989ko azaroaren 20an elkartu zen **Nazio Batuen Erakundea Haur Eskubideen Konbentzioa** bileran. Nahiz eta garai hartan adin txikiko pertsona guztiei “haur” deitzen zitzairen, haur zein nerabeen eskubide-zerrenda adostu eta sinatu zuten. Ez hori bakarrik, zerrendatutako eskubideak betearazteko konpromisoa ere hartu zuten. Estatu parte-hartzaileen artean zegoen Espainia, hartutako ardura 1990eko abenduan berretsi eta Konstituziora egokitu zuena.

**Espainiako** Konstituzioak, 39. artikuluan, aldarrikatzen du botere publikoen ardura dela familien eta bereziki adin txikiko pertsonen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea. Babes hori bermatzeko helburuarekin, Espainiako Estatuak *Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor* legea sortu zuen, geroago moldapen eta eguneraketak egin zaizkiona. Aipaturiko moldaketen helburua honakoa izan da: babes-tresnak egokitzea aldaketa sozialetara, adin txikiko pertsonen babesa bermatzen segi ahal izateko.

Estatuko legea jarraituz, Autonomi Erkidego bakoitzak bere errealitateari egokitutako araudia sortu du. **Euskal Autonomi Erkidegoan** indarrean dagoen legea honako hau da: *3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa*. Jarraian ageri dira laburbilduta legeak adin txikiko pertsoneri aldarrikatzen dizkien eskubide aipagarrienak:

- Lehenengo kapitulua: Oinarrizko eskubideak.
  - Ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea.
  - Nortasunerako eskubidea.
  - Informazioa eskuratzeko eskubidea.
  - Askatasun ideologikorako eskubidea.
  - Parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubidea.
  - Adierazpen askatasunerako eskubidea.
  - Esateko dutena entzun dakien eskubidea.
  - Nork bere eskubideak defendatzeko eskubidea.
- Bigarren kapitulua: Osasunerako eta osasun-zerbitzuak jasotzeko eskubidea.
- Hirugarren kapitulua: Hezkuntzarako eta hezkuntza zerbitzuak jasotzeko eskubidea.

- Laugarren kapitulua: Kulturarako eskubidea, eta gizartearen eta kulturaren arloan babestuta egoteko eskubidea.
- Bosgarren kapitulua: Aisialdi aktiborako eskubidea.
- Seigarren kapitulua: Ingurumenerako eskubidea.
- Zazpigarren kapitulua: Ingurunerako eskubidea.
- Zortzigarren kapitulua: Gizarteratzeko eskubidea.

Aipatutako eskubideak bermatu ahal izateko, **Gipuzkoan** esku-hartze sistema desberdinak garatzen joan dira: alde batetik, sustapen sistema eta bestetik babes-sistema.

**Babes-sistemaren** baitan, arreta ematen zaie bazterkeria, babesgabezia edota mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden haur eta nerabeei. Horren aurrean jarduteko derrigortasuna dute Udal Gizarte Zerbitzuek, Eusko Jaurlaritzaren lege honek dioenez: *12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa*. Jarduera arautzeko dago *185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa*. Bertan, besteen artean, 1.3. zerbitzua azaltzen da (gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua). Horren barruan sartzen dira familia esku-hartzea, kale-heziketa eta bitartekaritza komunitarioa.

**Sustapen-sistemari** dagokionean, 2009-2010 urteetan *GAZTEMATIKA* izeneko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapen Sistema publikoa sortu zen (Gipuzkoako Foru Aldundia eta zenbait udaletako gazteria sailen artean). Helburua da haur, nerabe eta gazteen kalitatezko arreta bermatzea; baina, era berean, zeharka, haien familiei eta haietaz arduratzen diren erakundeei ere eragitea.

GAZTEMATIKARI esker lan egiteko modu sistematizatua sortu da, lurralde osoan lan-ildo berak jarraitzeko, beti ere udalerrri bakoitzaren ezaugarri eta errealitateari egokituta. Horretarako hurbileko zerbitzu publikoak proposatzen ditu.

Esandako guztiaren ondoren, hiru ondorio nagusi atera daitezke:

- Lehenengoa.- Adin txikiko pertsonen eskubideak anitzak eta konplexuak dira, eta haur eta nerabeek dituzten beharrei zuzenki lotuta daude. Horregatik, eskubide guztiak betetzen ez badira, behar batzuk ase gabe geratuko dira, eta garapen prozesuan hutsuneak izango dituzte.
- Bigarrena.- Beren eskubideak betetzea eta beharrak asetzea gizarte osoaren ardura



da, ez familiena soilik. Horrekin lotuta, ezinbestekoa da hezkuntza, segurtasun, ongizate, sustapen, osasun eta bestelako eragileen arteko elkarlana.

- Hirugarrena.- Beharrei dagokienean gabezia larriak dituzten haur eta nerabeei arreta berezia jarri behar zaie. Legezko derrigortasuna daukate Udal Gizarte Zerbitzuek horien aurrean jarduteko.

### **3.2. HAUR ETA NERABEEN EZAUGARRI EBOLUTIBOAK**

Haurra, jaiotzen denetik 18 urte egiten dituen arte, hainbat hazkunde-arotatik igarotzen da: haurtzaroa (haurtzaro goiztiarra, lehen haurtzaroa eta bigarren haurtzaroan sailkatuta) eta nerabezaroa (aurrenerabezaroa, bitarteko nerabezaroa eta nerabezaro berantiarra). Hala ere, nerabezaroaren barruko aldiak ez dira hain nabarmenak, eta horregatik, aro bakarrean bateratu daitezke.

Aro bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak ditu. Guztietan da nabarmena garapen fisikoa; baina arreta berezia jarri behar zaie garapen psikologiko, sozial eta afektibo-emozionalari. Jarraian agertuko dira esanguratsuenak:



**HAURTZARO  
GOIZTIARRA  
(0-3)**

- Garuna hazi eta garatzen da.
- Gaitasun linguistikoak eta informazioa prozesatzekoak eskuratzen dira.
- Norberaren kontzientzia lortzen da.
- Adimen emozionalaren ikasketa-prozesua hasten da.
- Garrantzi berezia daukate elikadura eta kanpo-estimulu egokiek.

**LEHEN  
HAURTZAROA  
(3-6)**

- Izaera garatzen hasten da eta haserrealdiak ohikoak dira.
- Ikaskuntza helduen behaketa eta imitazio bidez ematen da.
- Jolas arautuen bitartez, kanpo-arauak onartzen ikasten da.
- Frustrazioa gainditzen ikasten da, helduek jarritako mugei esker. Horrela, egonkortasun afektibo-emozionala lortzen da.

**BIGARREN  
HAURTZAROA  
(6-12)**

- Arreta mantentzen ikasten da.
- Askotariko gaitasun kognitiboak garatuta daude eta horiek erabiltzen ikasten da.
- Testuinguru eta harreman sozialen araberako iritzi morala eraikitzen da.
- Aukera eta mugen kontzientzia hartzen da.

**NERABEZAROA  
(12-18)**

- Nerabezaroa trantsizio aldi bat da garapenean; pubertaroarekin hasten da, eta ezaugarri ditu aldaketa fisiko-hormonalak.
- Lagun-taldearen parte sentitzeko beharra nabarmentzen da.
- Nortasuna eta sexualitatea azaleratzen dira.
- Independentzia izateko eta erabakiak hartzeko nahia hasten da, autonomia garatuz.

### 3.3. HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO BEHARRAK

Haur eta nerabeek dituzten berezko premien ondorio izan behar dira helduok haiekiko ditugun erantzukizunak. Behar horien sailkapena modu askotara egin daiteke, baina F. Lópezena (1995) da Eusko Jaurlaritzak lehenesten duena eta erreferentzia gisa hartzen duena EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Udal eta Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuetan BALORA tresna (Arrisku eta Desanparo egoeren larritasuna balioestekoa) eratzean.

Sailkapenaren horren arabera, bost esparrutan banatzen dira haur eta nerabeen oinarrizko beharrak. Jarraian azalduko dira, alde batetik, aipaturiko premien taxonomia eta, bestetik, premia horiek asetuta daudela egiaztatzeko balio duten ebaluaziorako adierazleak.

PREMIA FISIKOAK	
PREMIAK	ASEBETETZE ADIERAZLEAK
<b>Elikadura</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Amaren elikadura egokia haurdunaldian eta edoskitzean.</li><li>- Elikadura nahikoa, askotarikoa, denboran banatua, adinari egokitua.</li></ul>
<b>Tenperatura</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Etxebizitza eta arropen baldintza egokiak.</li></ul>
<b>Higienea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gorputzaren, etxebizitzaren, elikaduraren, jantzien eta ingurunearen higieena.</li></ul>
<b>Osasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Adinari eta osasun egoerari egokitutako osasun-azterketak; txertaketak.</li></ul>
<b>Lo egitea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Espazio-giro babestua eta isila; nahikoa lo egitea adinaren arabera, eta ume txikia bada, siestekin.</li></ul>
<b>Jarduera fisikoa: ariketa eta jolasa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Mugimendu-askatasuna espazioan; espazioa jostailuekin eta beste haur eta nerabeekin; kontaktua natura elementuekin: ibilaldiak, irteerak, txangoak, etab.</li></ul>

## SEGURTASUN PREMIAK

PREMIAK	ASEBETETZE ADIERAZLEAK
<p>- Haur edo nerabearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten inguruneko baldintzen aurkako babesa</p> <p>- Haur edo nerabea kaltetzen duten edo kalte dezaketean bestelako pertsona helduen edo adingabeen aurkako babesa</p> <p>- Haur edo nerabeak bere buruari egin diezaiokkeen kaltearen aurkako babesa</p>	<p>- Segurtasun baldintzei egokitutako etxebizitza (entxufeak, garbigarriak, instrumentu eta erremintak, eskailerak, etab.).</p> <p>- Ikuskapena: haur edo nerabearen harremanen eta dagoen lekuaren gaineko ezagutza eta kontrola.</p> <p>- Orientazioa eta bide-laguntza: Haur edo nerabeari oinarritzko segurtasun arauak irakastea.</p> <p>- Prestutasuna: Laguntzeko eta babesteko zuzeneko esku-hartzea, haur edo nerabea beste pertsona batzuek edo bere buruak kaltetzen dutenean edo kalte dezaketenean.</p>

## PREMIA EMOZIONALAK

PREMIAK	ASEBETETZE ADIERAZLEAK
<p><b>Segurtasun emozionala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Harreman seguruak, egonkorak eta afektiboak izatea pertsona heldu esanguratsuekin</li> <li>○ Haurraren edo nerabearen premiekiko sentsibilitatea eta ardura</li> <li>○ Kontaktu fisiko egokia</li> <li>○ Afektua eta errefortzu positiboa jasotzea</li> <li>○ Jarraikortasuna familia-harremanetan eta heldu esanguratsuekiko harremanetan</li> </ul>	<p>- Baldintzarik gabeko atxikimendua; kontaktu goxoa; afektu adierazpen fisiko eta hitzezkoak; haurraren edo nerabearen lorpenen eta alderdi positiboen errefortzua eta balioespena; kontrolatzeko gaitasuna; gatazkak moral inductiboarekin konpontzea (adibidez, ikuskatzeko aukera haurra edo nerabea erabakiaz kexatzen denean); elkarreragin ludikoa guraso-figurekin eta beste ahaide batzuekin.</p>

<b>Pixkanakako parte-hartzea eta autonomia</b>	- Haur edo nerabearen parte-hartzea erabakietan eta familian, eskolan eta gizartean bere buruaren eta gainerako pertsonen alde egin dezakeenaren eta eraginpean hartzen dituenaren kudeaketan.
<b>Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea</b>	- Galderak erantzutea; jolasak eta autoestimulazio sexuala onartzea; abusetatik babestea.
<b>Irudimenezko arriskuen aurkako babesa</b>	- Haur edo nerabearen beldurrak entzutea, ulertzea eta erantzutea; beldurra adierazteko aukera; beldurrak sustatzen dituzten hitzak eta jokabideak saihestea.
<b>Ezinegon emozionaleko arazoak eta sintomak konpontzeko laguntza izatea</b>	- Haur edo nerabearen ezinegon emozionala sortzen duten arazoak eta sintomak identifikatzea; sintomen garrantziaren balioespen egokia; arreta espezifikoa ematea horiek konpontzeko; arreta espezializaturako irisgarritasuna familiako esku-hartzea nahikoa ez denean.

## GIZARTE PREMIAK

PREMIAK	ASEBETETZE ADIERAZLEAK
<b>Jokabideko mugak eta orientazioa</b>	- Mugak jartzea haur edo nerabearen jokabide desegokien aurrean; diziplina sendoa, irakaskuntza gisa ulertuta, eta afektu eta enpatia moduan transmitituta; diziplina inductiboa erabiltzea; hauraren edo nerabearen jarduerak gainbegiratzea.
<b>Emozioak kontrolatzen eta jokabide egokia izaten ikastea, gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko</b>	- Balio moralak irakastea, bulkadak kontrolatzen irakastea, desberdintasunen aurrean errespetua eta enpatia-gaitasuna garatzea.
<b>Gizarte-harremanen sarea</b>	- Kidetasuna eta laguntasuna berdinekin; jarraikortasuna harremanetan; baterako jarduerak seme-alabak dituzten beste familia batzuekin; beste haur eta nerabe batzuk parte hartzen duten taldeetan sartzea.
<b>Elkarreragin ludikoa</b>	- Elkarreragin ludikoa berdinekin eta familiarik kanpoko pertsonekin.

## PREMIA KOGNITIBOAK

PREMIAK	ASEBETETZE ADIERAZLEAK
<b>Zentzuen estimulazioa: Miaketako eta ikaskuntzako esperientziak izatea</b>	- Zentzumenak estimulatzea; estimuludun ingurunea; estimulu kantitate handia, askotarikoa eta kontingentzia; elkarreragin ludikoa familian; hizkuntza estimulazioa.
<b>Ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea prozesu hezitzaile antolatu baten bidez (eskola edo homologatutako beste bat)</b>	- Prestakuntza prozesu hezitzaile egituratua ematea modu egonkorrean, eskolaren bitartez edo behar bezala homologatutako beste eredu baten bitartez.
<b>Miaketa fisiko eta soziala</b>	- Inguru fisiko eta sozialarekin kontaktu egokia (jostailuak, inguru naturala eta pertsonak); ingurune fisiko eta soziala miatzea; segurtasun-oinarria ematea eta esperientziak partekatzea.
<b>Errealitate fisiko eta soziala ulertzea</b>	Modu kontingentean entzutea eta erantzutea galderei; egia esatea; haurrak edo nerabeak bizitzaren, sufrimenduaren, gozamenaren eta heriotzaren ezagutzan parte har dezan egitea; bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi positiboa transmititzea; gizartearen eta egokitzapenaren aldeko jarrerak, balioak eta arauak transmititzea; tolerantzia desadostasunen eta ezberdintasunen gainean.

### 3.4. AZKEN URTEOTAKO JOERA SOZIALAK

Aldaketa handiak izan ditu gizarteak, hainbat arlotan, azken hamarkadetan. Horien aurrean, gizarte kide guztiek izan dute egokitu beharra. Horrek eragin nabarmena izan du familia-ereduetan eta adin txikiko pertsonen zaintzan. Ondorioz, haur eta nerabeen errealitatea moldatu egin da, eta behar berriak dituzte egun.

Hauek dira haurrengan eragina izan duten aldaketak, Gaztematikaren *Toki-eremuko Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua zehazteko oinarrizko dokumentuan* dioenez:

- **Demografia:** Alde batetik, ugalkortasun-tasa nabarmen jaitsi da, nahiz eta migrazio mugimenduen ondorioz haurren kopurua igo. Bestalde, sistematikoki igo da lehenengo seme-alaba izateko adina. Horrek zera esan nahi du: gurasoek beste bizitza-ziklo batean uztartu behar dituztela gurasotasuna eta errealizatu sentitzeko beharra (arlotan pertsonalean, profesionalean eta sozialean).
- **Ekonomia:** Ekonomia-krisiak ezberdintasunak areagotu ditu baliabide gehien eta gutxien dituzten familien artean. Ekonomia ezegonkorrak familia barneko tentsio-egoerak sorraraz ditzake, eta haurrak ahultasun egoerara bultzatu. Gisa horretako ahultasun egoera pairatzen duten haurrek, arrisku handiagoa dute bazterketa eta desabantaila sozialak bizitzeko; eta horrek beren etorkizuna baldintza dezake.
- **Familia-ereduak:** familia-ereduak nabarmen aldatu dira. Gero eta ugariagoak dira banandutako, dibortziatutako eta guraso bakarraz osatutako familiak. Horrek esan nahi du, gero eta ohikoagoa dela seme-alaben zaintza guraso bakarren gain egotea batez ere. Horrek zailtasunak sortzen ditu amatasun edo aitatasuna uztartzeko bizitzako beste arloekin.
- **Genero rol-ak familietan:** Gaztematikako dokumentua sortzeko eginiko azterketan, ikusi da mantendu egiten dela haurren ikuspegia familia barruko genero rol-en inguruan. Aipatu beharra dago, gizonezko batzuek egin dutela saiakera lana eta aitatasuna uztartzeko, baina zailtasunak izan dituztela beraiek jasotako heziketa motagatik.

- **Umeez arduratzeko denbora falta:** Lan-merkatua ez dago egokituta lana eta gurasotasuna bateratzeko beharretara. Hau da, gurasoen lan-ordutegiak ez daude seme-alaben ordutegietara egokituta, eta beraz, haiek zailtasunak dituzte familiari denbora eskaintzeko. Horrek honakoa ekarri du: haurrak eskolaz kanpoko ekintza askotan parte hartzen dute, ez ikasketa-esperientzia gisa, baizik eta gurasoentzat ezinezkoa den zaintza-lan hori ordezkatzeko.
- **Teknologia berrien eboluzioa:** Gaur egungo gizartean oso barneratuta dago teknologia berrien erabilera, eta hori haurrei transmititzen zaie. Ondorioz, adin txikikoek beraien denbora librearen zati handi bat tresna teknologikoekin jolasten pasatzen dute; eta jolas tradizional eta sinbolikoei geroz eta garrantzi gutxiago ematen diete.

Nerabeei dagokienean, jarraian azalduko da aurretik aipatutako aldaketa sozialen ondorioz bizi duten egoera; *Gaztematikaren Toki-eremuko Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua zehazteko oinarrizko dokumentuan* dioenez:

- **Nerabezaroarekiko ikuspegi kontrajarriak daude helduen artean.** Eman beharreko arreta nolakoa den ez dakitenez, zailtasunak eta arazoak ikusteko joera nabarmentzen da. Baina, azaleko interpretazioak eta aurreiritziak alde batera utziz gero, ikusiko da funtsezko transformazio-aldian murgilduta dauden subjektuak direla. Hau da, beren mundu pertsonala eratze-prozesu kaotikoa da: orain direna deseraikitzeke eta zer izan nahi duten jakiteko etapa, izan nahi dutena probatzeko, entseatzeko, praktikatzeko garaia.
- Hala ere, **nerabetasuna adin-talde bat edo eboluzio-ezaugarri batzuk baino gehiago da.** Horregatik, alde batera utzi behar da nerabe kontzeptu unibertsal eta homogeneoa; horren ordeztu, norbanakoak eta aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da. Are gehiago, nerabe bakoitza subjektu aktibotzat ikusi behar da.
- Hori guztia esanda, **sustapenerako baliabideak edukitzeko eta horietan parte hartzeko eskubidea dute**, pertsona gisa eta herritar gisa era daitezen ahalbidetzeko.



## **4.- SORALUZeko DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK ETA HAUR ETA NERABEEN EGOERA**

### **4.1. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA**

Udal-eroldaren arabera, Soralezeko **biztanleria** jaitsi egin da 2010etik. Urte horretan 3995 pertsona bizi ziren herrian (2008 gizonezko eta 1987 emakumezko). Nahiz eta 2017an gorakada txiki bat izan, beheranzko joerak gaur egun arte iraun du, eta biztanleria 2018 hasieran 3.893 pertsonakoa da (1942 gizonezko eta 1951 emakumezko). Azken zortzi urteotan lehenengo aldiz, emakumeen kopurua handiagoa da gizonezkoena baino.

**Migrazio-mugimenduei erreparatu**, EUSTATen 2016ko datuen arabera, Soralezeko biztanleen %71 jaio da EAEn; %17,8 Estatuko beste lurraldeetan eta %10,9 atzeritik etorri da. Azken urteotan Soralezeko migrazio-mugimenduek aldaketak izan dituzte: Soraluzen jaio edo EAeko beste herrietatik etorri den biztanle kopurua jaisten ari da urtetik urtera; Estatuko beste lurraldeetako etorkin-tasa ere jaitsi egin da; eta atzeritik etorritako pertsonen kopurua, igo. *Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, 2016an Gipuzkoako zein EAeko atzeritar kopuruaren gainetik zegoen Soralezekoa. Gipuzkoan %8,8 zen batezbestekoa; eta EAEn %8,6.


Arrazoiak garbi jakin ezin daitezkeen arren, hipotesia da 2010-2012 urteetan alokairu merkeagatik erabaki zutela etorkin askok Soraluzen bizitzea. Ordutik izan den migrazio-mugimendu nabariagatik, Soralezeko Udalak Harrera Protokolo bat sortu beharra ikusi du, biztanle etorri berriei herrian integratzen laguntzeko euskara ardatz hartuta. Horren aurretik, etorkinei eman beharreko arreta protokolizatu gabe zegoen, harrera linguistikoaren aldeko saiakera egiten zen, baina hutsunea zegoen herriko baliabideen informazioa emateko eta etorkinen integrazioa bultzatzeko garaian.

**Kulturen arteko elkarbizitza eta erlazioen** inguruan, hainbat ikuspegi daude. Batzuek uste dute Soraluzen etorkinek ez dutela elkarbizitza-arazorik izaten. Udaltzainburuak, esaterako, azpimarratzen du herri lasaia dela eta liskar nabarmenik ez dela egoten bertako eta kanpokoen artean. Baina beste batzuek diote Soralezekoak elkarbizitzara ohituta dauden arren, bertako jendeak aurreiritzi negatiboak izaten jarraitzen duela etorkinekiko. Batez ere krisi garaietan, askok leporatzen diete etorkinei errua (“diru laguntzez bizitzera datozela” eta “gure dirua


etorkinengan gastatzen dela” modukoak esanez). Baina datuak begiratu gero, ikus daiteke GLL- RGI kobratzen duten 0-16 urte bitarteko seme-alabadun 45 familietatik 20 direla etorkinak.

Haur eta nerabeekin izandako aurrez-aurreko saioretan ere, jarrera desberdinak azalera dituzte: batzuek hizkera baztertzalea erabili dute etorkinekiko, eta beste batzuek, mota horretako pentsaerak aldatu beharra aldarrikatu dute. Irakasleek uste dute orokorrean elkarbizitza-arazoak momentu puntualetan soilik egoten direla, baina etorri-berriek elkarren artean biltzeko joera dute eskolan zein kalean. Denbora motzeko joan-etorriek haur eta nerabeen integrazioa zailtzen dute. Bertako ama batek elkarrizketan zioen egoera horren ondorioz, bertako haurrak batzuetan ez direla saiatzen etorkinen lagun egiten. Hala ere, haur eta nerabe etorkinen gurasoek bertan lana aurkituz gero, erraztu egiten da, seme-alabak bertan egonkortzeko intentzioa dutelako.

Beharren Azterketa honen ardatz diren **0-16 urte bitarteko pertsonak**, 2018ko apirilako udal-eroldaren arabera, 606 dira (273 neska eta 333 mutil). Horien **jatorri**ei dagokienean, honako sailkapen hau egin daiteke:



Alde batetik, beste herrialde batzuetatik etorritako haur zein nerabeen jatorriak azalduko dira jarraian:



Bestalde, Estatutik etorritako 42 haur eta nerabeen multzoa aztertu behar da. Horietatik 16k bakarrik dute nazionalitate espainiarra. Beste 20ren nazionalitatea marokoarra da, 4ena pakistandarra, 1ena algeriarra eta 1ena errumaniarra.

Amaitzeko, aipatu beharra dago asko direla Soraluzera iritsi baino lehen behin baino gehiagotan lekualdatu diren adin txikikoak; eta baita leku batean jaio baina beste nazionalitate bat dutenak ere. Ondorioz, pertsona askok bizi dute hainbat kulturen arteko nahasketa beren baitan. Horrek guztiak eragin zuzena dauka herriko hizkuntzen erabileran.

Herriko hainbat eragile kezkatuta daude **euskararen egoeraz**. *Soraluzeko Datu soziolinguistikoen bilduman* jasota dagoenez, euskal hiztunen kopuruak beherantz egin du azken urteotan, eta joerak horrela jarraitzen du. 2016an Soraluzen egindako euskararen kale-neurketak honako hau ondorioztatu zuen: behatutako pertsonen %31,2 ari zen euskaraz; %66,2 gaztelaniaz; %2,6 beste hizkuntzatan.

Galera horiek azaltzeko garaian, ondorengoak nabarmen daitezke: ama hizkuntza euskara bakarrik duten haur eta nerabeen proportzioa jaitsi egin da; garai batean herrian zeuden bi ikastetxeak elkartzeak eragina izan du harremanetan erabiltzen den hizkuntzan; biztanleria zahartu denez, helduen taldeak hartu du pisu demografiko

handiena, eta hori da adin-talderik erdaldunena; kanpotik etorrita euskaraz jakin gabe eskolatu diren haur eta nerabeen kopurua handia da.

Udal teknikariaren hitzetan, haur eta nerabeen artean euskararen ezagutza zabaltzeko lan handia egin da azken urteotan. Udalerrian gakoa izan da D eredia orokortzeko prozesua, eta 20 urtean zehar hezkuntza-sistema bidezko euskalduntze-dinamika hedatzea eta egonkortzea lortu da Sorraluzen.

Gaur egun, haurren %88 euskalduna da ezagutzari dagokionean, baina, erabilerak behera egin du azken urteetan. 1999an beti euskaraz edo euskaraz gazteleraz baino gehiago egiten zutela zioten Lehen hezkuntzako haurrak %72 ziren eta 2016an, aldiz, %16 dira. Halaber, haurren kaleko erabilera %70 zen 2001ean eta %42 2016an.

Ikastetxeetan lehentasunez lantzen dute euskararekiko kontzientziazioa haur eta nerabeekin. Institutuan dituzten datuen arabera, herrian 12 hizkuntza hitz egiten dira, eta ikastetxean 5 familia-hizkuntza daude. Irakasleen kezka nagusienetakoa da, baina uste dute hezkuntza-sistema ez dela lanketarako tresna bakarra izan behar. Haur eta nerabeekin izandako saioetan, gutxiengoak hitz egin du euskaraz, edo adierazi du hizkuntzaren erabilerarekiko kontzientziazioa.

Hori ikusita, saiakera handia egiten ari da Udala euskararen erabilera sustatzeko. Besteak beste, Euskara Planak martxan jartzen ditu, eta Pil-pilean herriko Euskara Elkartarekin elkarlanean aritzen da hainbat egitasmo antolatzen (*auzoko* eta *berbalagun* programak, EPAko euskara klaseak, etab.). Elkarteko sentsibilizazio teknikarien hitzetan, helduen euskararekiko motibazioa landu behar da, haurrengan gauza bera eragiteko. Gainera, garrantzitsua ikusten du haur eta nerabeek gozamenerako iturritzat hartzea euskara.

## 4.2. SORALUZETIKO HAUR ETA NERABEEN EGOERA, BEHARREN ARABERA

### 4.2.1. BEHAR FISIKOAK

Soraluzetiko **egoera sozioekonomikoa** deigarria da. Lanbideko datuek diotenez, 2018 hasieran langabezia-tasa %14,1koa da (%12 gizonezkoetan eta %16,6 emakumezkoetan). Gipuzkoako herrien batezbestekoa %9,6koa da (%7,6 gizonezkoetan eta %11,5 emakumezkoetan) eta, beraz, Soraluzetiko tasa lurraldeko batezbestekoa baino altuagoa da. Are gehiago, azpimarratu behar da Gipuzkoako udalerrien artean, langabezia-tasarik altuena daukala, eta Gipuzkoako udalerrien batezbestekoaren gainetik egon dela azken zortzi urteotan (2010ean Gipuzkoako batezbestekoa %6,6koa zen, eta Soraluzetiko %9,6koa). Arrazoietakoa bat izan daiteke azken urteotan herritar ugariaren lantokiak ziren hainbat enpresa itxi dituztela. Gainera, pertsona horiek ikasketarik gabekoak ziren, urteen poderioz beren lanbideak eskatutako gaitasunak barneratu dituztenak. Baina, hori horrela izanik eta dagoeneko helduak direnez, berriz ere lan-munduan txertatzeko zailtasun handiak dituzte.

Aurretik esandakoarekin lotuta, Soraluzetiko langabetuen ia erdiak (%46,82) 45 urte baino gehiago ditu. Bestalde, langabetuen ikasketa-maila oso baxua da (%83,14k Bigarren Hezkuntzako edo maila baxuagoko ikasketak ditu). Etorrinak ere ikasketa maila oso baxukoak dira eta lan-munduratzeko zailtasun handiak dituzte. Egoera hori ikusita, DEBEGESAK (Deba Barreneko Garapen Agentzia) Europako diru-laguntzekin eta Udalen ekarpen ekonomikoarekin *Txertatu Merkatuan* egitasmoa martxan jarri du. Bestalde, Soraluzetiko Udalak hainbat baliabide erabiltzen ditu langabetuentzat aukera izan daitezen: Eusko Jaurlaritzaren enplegu plana, Armagintza Eskolako formazio-eskaintza... Horrez gain, Caritasek EPAko matrikula ordaintzen die baliabide ekonomiko gutxi dituzten helduei; eta, datorren ikasturtera begira, gaztelaniako klaseak eskaintzea pentsatzen ari dira.

Lanbidek ematen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) kobratzen duten 0-16 urteko seme-alabak dituzten familiak 45 dira. Horietatik 14k Udalaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL-AES) ere jasotzen dituzte. Baina badaude Larrialdietarako laguntza bakarrik jasotzen duten 17 familia ere, 0-16 urteko seme-alabekin.

Aurretik aipatutako GLL-AES laguntzetan banatzen den dirua Eusko Jaurlaritzak ematen dio Udalari eta Udal Gizarte Zerbitzuek banatu. Soroluzeko Udalak ez du diru-partida hori handitzen. Pertsona askoren artean banatu behar denez, alokairurako 60 euro eta etxebizitza-mantenurako 50 euro ematen zaizkio bakoitzari. Gainera, jende ugari dago beharra izan, baina baldintzak betetzen ez dituelako, diru-laguntzarik gabe geratzen dena.

Udalak ematen dituen diru-laguntzen osagarri, Caritasen *Ekintza, lurraldean bertan* Sailak 2016an 153.813 euro banatu zituen Soroluzen, bailaran Eibarren ondoren diru gehien banatu den herria izan da. Laguntza horiek, batez ere, oinarrizko beharretarako, etxebizitza ordaintzeko edota garraiorako izan ziren. Horrez gain, beste baliabide batzuetara bideratzea ere egiten dute (adibidez, elikagai bankua). Guztira, 112 pertsona joan ziren laguntza eske eta horiei eta beren familiei laguntza emanda, 308 pertsonari lagundu zieten Soroluzen. Laguntza horiek, printzipioz, egora larria eusteko diren arren, kronifikatu egin dira askotan, DBE-RGI kobratzeko baldintzak bete arte.

Soroluzeko nerabeak, Lehen hezkuntzako azken ziklotik aurrera, hein batean ohartzen dira herriko egoera sozioekonomikoa ez dela ona. Arrazoia da familien egoera sozioekonomikoak eragin zuzena duela haur eta nerabeengan.

Egoera txarrean eta zaharrak dauden **etxebizitza** asko daude herrian, eta pentsa daiteke egoera sozioekonomiko baxuko familiak bizi direla bertan. Osasun sistemako profesionalak ezagutu dituzte horren ondorioz osasun arazoak dituzten adin txikikoak.

Egoera sozioekonomiko larrian dauden familientzat, ikastetxeetako jangela baliabide bat da haur eta nerabeen **oinarrizko premiak** asetzeko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren bekei esker, jangelari esker jatordu osatua ziurtatuta dute egunean behin.

Osasun sistemako profesionalak **ohitura osasungarrien falta** ikusten dutelako kezkatuta daude. Diotenez, familietan ez dira ohartzen elikadura orekatuaren eta kirola egitearen garrantziak. Aurrekoarekin lotuta, ikusten dute heldu askok dituztela osasun arazoak kontzientziario falta horren ondorioz. Azken finean, euskal kulturaren bizitza soziala eta erlazionala janaren eta edanaren inguruan egiten dira eta beste kultura batzuetan gozo asko jateko ohitura dago. Helduen ohitura horiek haur eta nerabeengan ere eragiteko arriskua dago, gehiegizko pisua eta aho osasun arazoak

sortuz.

Gainera, profesionalek faltan botatzen dituzte kirola egin beharraz kontzientziatzeko kanpainak eta kirola egiteko ohiturak. Nabarmentzen dute helduek kirol gutxi egiten dutela eta horregatik haur eta nerabeek ez dutela kirol-erreferente heldurik.

Elikadura eta kirol ohiturak lantzeko behar handia duten familiak *Niños en movimientora* bideratzen dituzte (Osakidetzaren programa gehiegizko pisua prebenitzeko eta osasun hezkuntza hobetzeko). Baina familiek, orokorrean, ez dute gogo onez parte hartzen eta programa uzten dute.

Harrengan kirol ohiturak sustatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko *multikirola* eredua jarraitzen da herriko **eskola-kirolean**. Programa horren helburuak dira haurrek hainbat kirol ezagutzea (nabarmena baita futbolaren gailentasuna) eta lehiakortasuna saihestea.

Hala ere, oraindik lanean jarraitu behar da gurasoek futbolari eta kirol-lehiakortasunari lehentasuna ez emateko. Herriko *Kirolak eta Kiroldegia Saileko* Teknikariak dio familietan eskola-kirolari garrantzirik ematen ez diotenez, haurrengan multikirolarekiko jarrera ezegokiak agertu direla. Ikuspegi negatibo hori adierazi dute lehen hezkuntzako ikasle zaharrenek aurrez aurreko saioetan. Horrekin lotuta, adibidez, Pilota Elkartean ikusten dute haurrek ez dutela seriotasunez hartzen esku-pilota, etorkizunean ezingo direlako lehiatu beste kirolean bezala.

Eskola-kirolean parte hartzeko adinaren ondoren, **herriko kirol eskaintza** nerabeen eskaerei egokitzen saiatzen direla dio teknikariak. Baina, heltzen doazen heinean, kirol ekintzetako parte-hartzea asko jaisten da, batez ere nesketan, eta desberdintzen hasten dira neskek eta mutilek egiten dituzten kirolak. Adibidez, Euskal Dantzetan mutilen presentzia faltan botatzen dute eta pilotan neskena.

Bigarren hezkuntzako ikasleek kirol-eskaintzatik kanpo geratzen direla uste dute. Gainera, neska helduenen ikuspegia da aukera gutxiago dutela kirolerako herrian mutilek baino. Adin horretan, hainbat kirol klubetan izen-eman nahi duten gazteek inguruko herrietara mugitu behar dute. Izan ere, herri txikia izanik, taldeak osatzea zaila da eta kiroldegiaren espazioa mugatua da.

Gurasoen satisfazio-maila kirol eskaintza eta baliabideen inguruan, galdetegietan

esan dutenez, jaitsi egiten da seme-alaben adina igotzen doan heinean: haur hezkuntzako gurasoek 10etik 5,74ko batezbesteko balorazioa eman diote; lehen hezkuntzakoek 5,5ekoa; bigarren hezkuntzakoek 4,45. Batez ere, egiten dituzten eskariak dira kirol eskaintza zabaltzea eta kirola egiteko gune edo baliabideak areagotzea.

Aurrekoarekin lotuta, kaleak kirola eta aire libreko ekintzak sustatzeko leku atseginak izan beharko lirateke. Horren ordean, kaleak zein ibaia zikinak egoten direla diote bai profesionalek, baita haur eta nerabeek ere. Horri garrantzi berezia eman diote elkarrizketetan 0-2 urteko hurrekin lan egiten duten profesionalek, ezinbestekoa baita lurra garbia egotea haurren osasuna eta segurtasuna bermatzeko (adibidez, Haurreskola inguruan).

Haurren osasun-egoeraren jarraipena egiteko, osasun baliabideak murriztegiak direla eta larrialdietarako zerbitzua falta dela esan dute guraso batzuek galdetegietan. Orokorrean, **osasun baliabideen inguruko** satisfazio-maila baxua adierazi dute (10 puntutik 5,2ko balorazioa eman diote).

Nerabeen osasun fisikoaren inguruan, garrantzi handia hartzen du sexu-erlazioen arriskuen aurrean babesteak. Ildo horretatik, emaginaren ustetan, nahiz eta prebentzio lana egiten den, nerabeek kontzientzia-maila baxua dute arriskuen aurrean. Dio adin horretan gurasoekin komunikazioa dela garrantzitsua, eta beharrezko izanez gero profesionalengana jotzea.

#### **4.2.2. SEGURTASUNA**

**Babes-gabezia egoeran** egon daitezkeen haur eta nerabeen detekzioa, jarraipena, koordinazioa eta elkarlana sistematizatu beharra dago Sorailuzen. Egun, ezegonkorra da sistemen arteko harremana: hezkuntza-sistemaren, osasun-baliabideen eta Udal Gizarte Zerbitzuen artean bilerak egiten dituzte; ludoteka eta gaztelekuko hezitzaileek egoera puntualetan parte hartzen dute sarean; haurreskola harreman horretatik at geratzen da, susmoen aurrean jarduteko barne-protokoloa duelako.

Detekzio gehienak ikastetxeetatik egiten dira, eta kasu larrietan informazio-trukea egiten da sistemen artean, nahiz eta batzuetan Datu-Babesaren Legea hausteko beldurrak zaildu egiten duen trukaketa hori. Informazioa jaso ondoren, Udal Gizarte



Zerbitzuak arduratzen dira balorazioa egiteaz eta beharrezko zerbitzu edo baliabidea martxan jartzeaz. Baina egoeraren balorazioa eta baliabideen aktibazioa eraginkorragoak izango lirateke profesionalen arteko sarea indartuz eta talde-lanean arituz gero. Egindako elkarrizketen arabera, profesionalak prest egoten dira egoera horien aurrean inplikatzeko.

Gainera, elkarrizketatutako hainbat profesionalak diote batzuetan Gizarte Zerbitzuek ezin dietela egoerei irtenbide egokiena eman, aurrekontu eta denbora arazoengatik. Horrekin lotuta, haur edo nerabe batentzat laguntza-zerbitzuren bat eskatzen denean, denbora asko pasatzen da hori aktibatu arte, eta bitartean egoera larriagotu daiteke (adibidez, hori gertatzen da Osasun Mentaleko Zentrorra bideratzen diren kasu batzuekin). Bestalde, faltan botatzen dute familia esku-hartze gehiago edo bestelako zerbitzu sozio-hezitzaileak eskaini ahal izatea. Besteen artean, terapia alternatiboak bultzatu beharko lirateke ikastetxearen ustetan (adibidez, psikomotrizitate saioak).

Une honetan, 7 babes-gabezia egoerarentzat daude programak abian Soraluzen: 2k Aldundiaren familia esku-hartze zerbitzua jasotzen dute (babesgabezia egoera larria delako) eta beste 5ak Udalaren esku daude. Horrez gain, 3 egoera daude diagnostiko-fasean herrian. Eskolen pertzepzioa da familia asko (gero eta gehiago) daudela desestrukturatuta.

Duela urte gutxitik hona, kontzientzia sortu da **genero indarkeriaren** biktima direla indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alabak ere. Soraluzen arrisku faktoreak daude genero indarkeria kasuak areagotu edo larritzeko, egoera soziodemografiko eta sozioekonomikoa ikusita. Genero indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko, erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa dago. Protokolo horretan parte hartzen duten eragileak honako hauek dira: Soraluzeko Gizarte Zerbitzuak, Soraluzeko Parekidetasun Zerbitzua, Soraluzeko Udaltzaingoa, Soraluzeko Osasun Zentroa, Mendaroko ospitaleko larrialdi zerbitzua, Eibarko Osasun Mentaleko Zentroa, Bergarako Ertzaintza, Plaentxi herri ikastetxea eta Soraluze BHI Institutua.

Aurreko urteetan baino detekzio gutxiago egin dira, nahiz eta susmatu inguruko herrietan baino kasu gehiago egon daitezkeela. Detekzioa dagoenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko edota Eusko Jaurlaritzako laguntza eta zerbitzuak aktibatzen dira Udal Gizarte Zerbitzuetatik; hala nola, larrialdi-pisuan egonaldia, terapia psikologikoa, aholkularitza juridikoa edo diru-laguntzak.

Soraluzeko II. Berdintasun Planaren baitan, duela gutxi aurkeztu da *Soraluzeko Mapa Morea*, helburuetako bat izan duenaherria genero-ikuspegitik aztertzea. Bertan ez-segurutzat jo diren guneak, emakumeentzat arriskutsuak izateaz gain, haurrentzat ere hala dira.

Segurtasunean eta babesean zonalde ez-segurutzat detektatu dira honako hauek: Estaziño, Gabolats, Sagarerreka, Errabal, Herri eskola ingurua eta Mendiola industrialdea. Horrez gain, haur eta nerabeen autonomia sustatzen ez duten gune gehiago daude (irisgarritasuna eta mugikortasuna kontuan izanda): Iturburu pasealekua, Gipuzkoa Plaza eta Zeleta etxetaldea. Horrez gain, aurrez aurreko saioetan, haur eta nerabeek eskatu dute abandonatutako guneak berriztatzea (adibidez, Kainoi fabrika)

Herriko **kaleen eta haurrentzako guneen** inguruan, gurasoek satisfazio-maila baxua adierazi dute galdetegietan (10 puntutik 4,2ko balorazioa eman diote). Askotan agertu da segurtasunagatiko kezka. Hala ere, erosotasunagatik, egokiak diren espazio eta baliabide batzuk ez dira erabiltzen eta ezegokiak diren batzuk bai (adibidez, anbulatorio aurreko plaza ez da segurua, kotxeak ibiltzen direlako, baina batzuetan gurasoentzat sozializazio-gune diren tabernetatik gertu dagoelako erabiltzen da).

**Herriko segurtasunak hutsuneak ditu nerabeen ikuspegitik** ere. Lehen hezkuntzako azken urtetik hasita, neska zein mutilak aipatu dute beldurra pasatzen dutela farolak gauez itzaltzen dituztenean edo gutxi daudenean, adibidez Txurruken kalean, Ezozian edo futbol zelaira bidean (kontuan izan behar da futbol zelaira haurrak kotxez eramaten behar dituztela gurasoek). Bigarren hezkuntzako neska helduenek festa-giroarekin ere lotzen dute segurtasun-falta. Beren gurasoak beraiek iritsi arte urduri egoten direla ikusten dute, eta beraiek ere ez dira lasai joaten etxera bidean.

Segurtasunarekin lotutako gaiekin amaitzeko, nerabeek zein gurasoek elkarbanatzen duten beste kezka nagusia da **sare sozialetako segurtasun falta eta erabilera txarra** (zyberbullyinga). Ikusita erabilera hain zabaldua dagoela, kontuan hartu eta landu beharreko gaia da.

### 4.2.3. PREMIA EMOZIONALAK

Jasotako familia-galdetegietan esan dutenez, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoetatik askok zailtasunak dituzte seme-alaben **zaintza eta lan profesionala uztartzeko**. Horregatik, aitona-amonen edo familiarik kanpoko pertsonen laguntza behar dute, edo lan-ordutegiak moldatu. Guraso-galdetegietan azaldu da, baita ere, seme-alabekin nahiko denbora ez pasatzeko kezka.

Bestalde, seme-alabekin loturiko ardurak bi gurasoen artean elkarbanatzen dituztela diote familia gehienek, baina arduradun bakarra aipatzen duten guztiek, ama dela esan dute. Horrekin lotuta, **zaintza rolak** batez ere amarekin lotzen dituzte haur hezkuntzako umeei. Pediatría zerbitzuko profesionalek ere haurrak amarekin joaten direla aipatzen dute. Lehen hezkuntzatik aurrera, ama eta aita biak aipatzen dituzte zaintzaz hitz egitean.

**Behar afektiboen asetzaren** inguruan, haur hezkuntzatik hasi eta nerabezaro hasiera arte (bigarren hezkuntzako 1 eta 2. mailatan) familiarekin egotea gustatzen zaie. Nerabezaroan, aldiz, jarrera desberdinak agertzen hasten dira familiarekiko: batzuk denbora gehiago egon nahiko lukete beraiekin eta beste bakarren batzuk hasita daude familia-erlazio gorabeheratsuak izaten.

Ikastetxeetan uste dute gero eta gehiago ordezkatzeko dituela hezkuntza-sistemak familietako gabeziak. Batez ere bigarren hezkuntzan, baloreen galerarekin lotzen dituzte gabezia horiek, hau da, garrantzi gehiago ematea behar materialei, emozionalei baino. Izan ere, uste dute nerabe asko daudela etxean bakarrik eta superbisiorik gabe egoten direnak.

Soraluzeko gurasoek beren seme-alaben **hezkuntza-prozesuaren jarraipena** egiterako garaian, hutsuneak daudela ikusi da. Hasteko, Haurreskolan haurren testuingurua (familia) bigarren mailan geratzen da, arreta gehien haurrengan jartzen dutelako. Hezitzaileek diote familiarekin harreman gutxi dutela, eta ez dute uste familiarren zailtasunak lantzeko ardura beraiena denik.

Ondoren, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzan, irakasleek diotenez, ikastetxea eta familien arteko erlazioa, gurasoen interesaren eta haurren beharren araberakoa da. Azpimarratzen dute askotan behar gehien dituzten haurren gurasoak direla interes gutxien agertzen dutenak.

Institutuan indar berezia jartzen dute gurasoekiko harremanean. “Bakarkako tutoretzak” deitzen dieten sistema daukate, non tutore bakoitzak ikasle gutxiren ardura duen. Gainera, gurasoekin behar beste bilera egiten dituzte. Hala ere, iruditzen zaie nerabe askori ez dietela jarraipenik egiten etxean, eta beraien ikasketei ez dietela garrantzirik ematen.

Plaentxi Herri Eskolako Guraso Elkartean (Atxolin), gurasoen %80 dago izen-emandak, aldiz Soraluzeko Institutuko Guraso Elkartean (Keixeta), gurasoen %30. Bi kasuetan, zuzendaritza-batzordean daudenak dira ardura gehien hartzen dituztenak. Orokorrean, zaila egiten zaie gurasoen parte-hartzea, eta batez ere Keixetaren kasuan, batzorde-kideak aurkitzea. Kirol Elkarteei galdetutakoan, ikusi da denetarik dagoela gurasoen inplikazioari dagokionean.

Familia eta eskolen arteko bitartekaritza-lanak egiteko eta haur eta nerabeen arteko erlazioak lantzeko, ikastetxeetatik kale-heziketa proposatzen dute. Horrez gain, gurasoentzat heziketa programa eskaintzea ere eskatzen dute, bultzatzeko familien inplikazioa seme-alaben beharrekiko, eta lehentasunak lantzeko.

Lehen hezkuntzako gurasoek diotenez, beren **seme-alabekin denbora gehien** hitz egiten, etxeko lanak egiten laguntzen edota aire libreko ekintzetan elkarbanatzen dute. Eta denbora gutxien, teknologia berriak elkarrekin erabiltzen, nahiz eta haurren aisialdian oso presente dauden. Ikusten denez, jolasak leku gutxi hartzen du guraso eta seme-alaben arteko erlazioan. Haur hezkuntzako hurrek, familiako norekin jolasten duten galdetuta, anai-arrebak aipatzen dituzte batez ere.

Haur eta nerabeen ongizate emozionalerako, ezinbestekoa da **atxikimendua** izatea familiarekin, eta baita **herriarekin** ere. Horregatik, Soraluze Herri Hezitzaileen sarean dago, eta Udalak saiakera handia egiten du haur eta nerabeen ikuspegia txertatzeko herrian eta bertako egitasmoetan. Beraien iritzia jaso nahi denean, ludoteka eta gaztelekuaren bitartez edo, Herriko Hezkuntza Proiektuaren kasuan, ikastetxearen bitartez egiten da. Horrez gain, herrian ere saio irekiak egin izan dira bai haur edo nerabeei hitza emateko, eta baita horien familiarekin lanketak egiteko ere. Gainera, gaztelekuan nerabeen iritzia kontuan hartuz, asanblada bitartez erabakitzen dira bertatik antolatuko diren ekintza eta irteerak.

Nerabe batzuk beren burua **etorkizunean Soraluzen** irudikatzen duten arren, multzo batek garbi dauka ez dela bertan biziko. Horrek pentsarazten du ez dutela herri

identitatea garatuta. Gainera, herriarekiko ikuspegi negatiboa gailentzen da haur zein nerabeen mezuetan (herri zikina dela, oraingo Soraluze ez zaiela gustatzen eta ez dutela uste etorkizunean hobetuko denik...).

#### **4.2.4. GIZARTE PREMIAK**

Ohikoa den moduan, Soraluzeko haurren **gizarteratze-joerak** aldatzen joaten dira hasten doazen heinean. Haur hezkuntzan, jolasteko garaian beren erreferentzia nagusia anai-arrebak direla aipatu dute aurrez aurreko saioetan, eta beste umeekin jolasten dutela gustukoen dituzten jolas-lekuetan (anbulatorioko plaza eta eskola ondoko eta azpiko parkeak). Teknologia berrien presentzia nabarmena da adin horretatik hasita.

Lehen hezkuntzan, lagun-talde finkoagoak agertzen hasten dira, eta ludotekan, parkean edo eskolan jolasten dute elkarrekin. Egiten dituzten ekintzei erreparatuz, desberdintasunak daude mutilen eta nesken artean.

Nerabegarora gerturatzen doazenean **sare sozialetan edo teknologia berriekin jolasten** denbora asko egoten direla diote bai neskek eta bai mutilek. Gehien whatsapp, instagram eta youtube erabiltzen dituzte. **Ekintzei** dagokienean, mutilek gehiago aipatzen dute kirola egitea eta neskek lagunekin egotea. Frontoian, elizako arkupeetan, eskola goiko parkean eta “etxepe” arkupean (Gabolats kalean, igogailuaren ondoan) pasatzen dute beraien aisialdi gehiena. Bigarren hezkuntzako azken urteetan, kiroldegiaren goiko terrazan (“goikopoan”) eta lokaletan egoten hasten dira, edo inguruko herrietara joaten dira. Lagunekin egoteari garrantzi handia ematen hasten dira, eta teknologia berrien erabilera gutxiagotan aipatzen dute baina presente egoten jarraitzen du.

Lehen hezkuntza amaieratik bigarren hezkuntza bukatu arte, **gaztetxokoa** erabiltzeko aukera dute: lehen hezkuntzako azken bi mailetan, ostiral arratsaldetan joan daitezke, eta bigarren hezkuntzan, asteburuetan. Bertako hezitzaileak arduratuta daude parte-hartzearekin, ikasturtea aldatzean, lehen erabiltzaile ziren nerabeek joateari uzten diotelako. Adibidez: joan den ikasturtean lehen hezkuntzako 6. mailan zeuden nerabeak ez dira joaten aurten; bigarren hezkuntzako 3. mailan ikasketekin arduratzen hasi dira eta ez dira hainbeste joaten; bigarren hezkuntzako azken mailakoak lokalean egoten dira. Momentuz, Udalak ez du esku-hartzen lokalen

fenomeno horretan.

Ikasturte honetan joaten diren erabiltzaileak, batez ere, bigarren hezkuntzako 2. mailako ikasleak dira eta horietatik oso gutxi dira neskak. Lokalaren espazio-banaketan, neskek zati txiki bat hartzen dute eta mutilek mugikortasun handiagoa ematen dien espazio zabalagoa.

**Nerabeek beraiantzat bereziki pentsatutako ekintza eta espazioak** botatzen dituzte faltan (adibidez: paintball, tirolina, skate park bat, zinean umeentzat ez diren pelikulak...). Asko aipatzen dute kontsumo-gizartearekin lotutako baliabideak nahi dituztela (saltoki-gune handiak, janari lasterreko jatetxeak, ...).

**Aisialdi- eta kultur-eskaintza**ren ingurukogurasoen satisfazio maila, familia-galdetegien arabera, jaisten doa seme-alaben adina igotzen doan heinean. Aisialdiari dagokionez, 10etik 5,59ko puntuazioa eman diote batezbeste haur hezkuntzako gurasoek; 5,28koa lehen hezkuntzakoek; 4,95ekoa bigarren hezkuntzakoek. Kulturaren inguruan, 10etik 5,57ko puntuazioa eman diote haur hezkuntzakoek; 5,10koa lehen hezkuntzakoek; 4,45ekoa bigarren hezkuntzakoek.

Familia-galdetegiekin jarraituz, proposamen asko egon dira eskaintza aberatsagoa eta zabalagoa eskatzen. Hori lotu daiteke, hein batean, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako gurasoek zaintza eta lan profesionala uztartzeko dituzten zailtasunekin; eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat dagoen eskaintza murrizta dela pentsatzearekin. Bestalde, aisialdiko gune gehiago egitea eta daudenak hobetzea botatzen dute faltan herrian, esaterako, parkeak estaltzea, nerabeentzat gune gehiago prestatzea, eta udan igerileku irekia izatea (edo bailarako igerilekuetara sarbidea). Udalaren asmoa da diagnostiko bat egitea eta parkeak berritzea.

Udaleko Kultur Teknikariak ikusten du, inguruko herriekin alderatuz Soraluze txikia denez, bertako kultur-eskaintza ere murriztagoa dela. Hala ere, dauden baliabideetan egiten den eskaintza zabala dela uste du. Udalaren helburua da haur eta nerabe guztiak izatea **sarbidea** beraiantzat bideratuta dauden zerbitzu eta ekintzetara; hau da, familiaren egoera ekonomikoa ez izatea oztopo aisialdi, kirol eta kulturako egitasmoetan parte hartzeko.

**Elkarbizitza-arazoak** nabarmentzen ari dira herriko haur eta nerabeen egunerokotasunean. Guraso-galdetegietan askok aipatu dute seme-alaben

harremanekiko kezka eta baloreak landu beharra. Herriko bi ikastetxeetan azpimarratu dute liskar ugari egoten direla adin txikikoen zein familien artean, haur eta nerabeek harreman ez-osasungarriak sortzen dituztela eta ikastetxeei tokatzen zaiela liskar horietan bitartekaritza-lanak egitea. Haur batzuk eta beraiekin lan egiten duten eragileak ohartu dira horretaz, eta bilerak egiten ari dira eskola, Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza Sailaren artean. Gainera, Udaleko Haur eta Gazteen Batzordean lantzeko asmoa dago jazarpenaren gaia. Herriko hainbat haur eta nerabeei eskola-errefortzua ematen dien pedagogoaren ustetan, Bullying kasuen jarraipena hobetu beharra dago, eragile gehiago kontuan hartuz.

Haur eta nerabeen erlazionatzeko ohiturak gaztelaniaz dira, eta beraz, hizkuntza ez da oztopo izaten **etorkinen sozializazio**rako. Hala ere, kasu batzuetan, ohitura kulturalak bai bihurtzen dira oztopo. Izan ere, batzuei ez diete uzten eskolaz kanpoko ekintza eta irteeratan parte hartzen, ezta kaleko sozializazio-guneetan egoten ere.

Gizarte arloarekin lotura duten **prebentzio-lanak** egiteko, ikastetxeetan programa bereziak hasi dira lantzen ikasleekin. Besteak beste, lanketak egiten dituzte bigarren hezkuntzan, kanpoko elkarten laguntzaz, honako hauen inguruan: droga-menpekotasuna, genero-berdintasuna, ziberbullyinga, istripuak, garapen afektibo-sexuala, boluntarioritza eta gizarte parte-hartzea eta euskararen erabilera.

Herriko adin txikikoekin lan egiten duen terapeutak dioenez, zentzu guztietan **prebentzioa** egin behar da 6 urte dituztenetik hasita. Berak ikusten du gazteek normalizatuta dauden jokabide arriskutsuak dituztela drogen kontsumoaren eta erlazio-moten inguruan, eta horiek eragotzi daitezkeela aurretik landuz gero.

#### **4.2.5. PREMIA KOGNITIBOAK**

Eskolatzea derrigorrezkoa ez den adin-tartean (0-6 urte), 2 urtetik beherakoen %80, gutxi gorabehera, ez dago **eskolatuta**; eta aldiz, 3-6 urtekoen %13.

Haurreskolako kuota minimoa hilabetean 91 eurokoa da diru-sarrera gutxien dituzten familientzat, eta garestiagoa diru-sarrera gehien dituztenentzat. Eusko Jaurlaritzak lehen diru-laguntzak ematen zituen arren, gaur egun ez dago laguntzarik. Horrez gain, Soraluzeko guraso asko langabezian daudenez, ez dute zaintza-zerbitzua erabiltzen. Badira, gainera, zaintzarako beste alternatiba batzuetara jotzen duten

gurasoak (familiaritekoen laguntza bilatu, lan-ordutegiak moldatu...). Horregatik guztiagatik asko jaitsi da haurren matrikulazio-kopurua 2009tik. Hala, gaur egun ez dira betetzen Haurreskolan eskaintzen diren plazak.

Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikasleen %45ek eta Bigarren hezkuntzako ikasleen %67k Eusko Jaurlaritzak eskainitako bekaren bat jasotzen du. Horrez gain, hezkuntzarako bekak emateko, Udalak 4.000 euroko aurrekontua du HH eta LHRako eta beste 4.000 eurokoa DBHRako.

Soraluzeko **ikastetxeen erronka nagusiak**, honako hauek dira:

- Ikasleen arteko **harreman osasungarriak** sustatzea.
- **Euskararen erabilera** bultzatzea ikasleen artean.
- Herritarrengan **formazio akademikoa indartzen** jarraitzea: Eskoletan nabarmentzen dute familietako hezkuntza-maila baxua dela orokorrean. Gainera, egoera hori hurrengo belaunaldietan erreproduzitzeko arriskua dago. Izan ere, deigarria da eskola-graduatu bertan lortu gabe institutua uzten duten ikasleen kopurua. Hainbat arrazoi daude tartean: motibazio falta, arrazoi kulturalak, Hasierako Lanbide Prestakuntzara (CIP) bideratzea... Familientzako galdetegia erantzun dutenen artean, ageri da seme-alaben hezkuntzarekiko kezka.
- Aipatutako arazoari aurre egiteko, **eskola-errefortzurako** egitasmoak daude Soraluzen: bailarako Caritasek *academias para menores* egitasmoa dauka, horri esker, errefortzuko klaseak jasotzera Eibarrera joateko aukera dute baliabide gutxiko familietako haur eta nerabeek. Bestalde, Udalak gela bat egokitu du ikasketa-gela erabilera emateko 16 urtetik gorako ikasleek. Bigarren Hezkuntzako ikasle batzuek, aurrez aurreko saioetan, bertara sartzeko adina jaistea eskatu dute.
- Ikasleek ikastetxearekiko duten **ikuspegia** aldatzen doa hazten doazen heinean: Haur hezkuntzako ikasleek eskolarekiko ikuspegi positiboa dute, ikaskuntza modu dibertigarrian eta jolas librearen bitartez egiten dutelako. Lehen Hezkuntzan, eduki kurrikularrak garrantzia hartzen eta metodologia aldatzean doazen heinean, ikasleentzat erakargarritasuna galtzen hasten da. Bigarren Hezkuntzan pertzepzioa askoz negatiboagoa da, eta gehien baloratzen dutena da gela-giro ona izatea eta



lagunekin egotea.

- Gauza bera gertatzen da gurasoen satisfazio-mailarekin: jaitsi egiten da seme-alaben adina igotzen doan heinean: haur hezkuntzako gurasoek 10etik 6,48ko batezbesteko balorazioa eman diote galdetegietan; lehen hezkuntzakoek 5,63ekoa; bigarren hezkuntzakoek 5,10.
- Lehen hezkuntza amaitzean, ikastetxe-aldaketa trantsizioa erraztea eta zailtasuna dituzten ikasleen jarraipena egitea. Horretarako, eskola eta institutuaren artean Bigarren hezkuntzan hasi aurretik informazio-trukea egiten da.
- Bigarren hezkuntza amaitzean, ikasten jarraitu nahi badute, beste trantsizio-aldi bat biziko dute ikasleek. Herritik irten behar dute edozer ikasi nahi dutela ere, eta garrantzitsua da momentu horietan laguntza eskaintzea. Nahiz eta Sorluzetik erreferentziazko batxilergo-zentroak Bergara edo Eibar izan, gehienak Elgoibarrera joaten dira.
- Neska eta mutilen aukera-berdintasuna sustatzen jarraitzea ikasketei dagokienean: Nerabeek uste dute aukera-berdintasuna dutela neska eta mutilek ikasketetarako, nahiz eta gero ikusten den joera desberdinak dituztela edo aukeraketa desberdinak egingo dituztela. Aurten institutua amaituko dutenen artean, mutilek erdi mailako heziketa zikloetara joateko asmoa dute, eta neskek batxilergora.

#### **4.2.6. PREMIA BEREZIAK**

Soraluzen badaude, aurretik aipatutako beharrez gain, premia bereziak dituzten haur eta nerabeak. Ikastetxeen arabera, kopurua handia da, horietatik batzuk diagnostiko zehatza dute, baina beste askok ez. Eguneroko dinamikan eragin handia du horrek, sozializazio zailtasun asko ikusten dituztelako, eta jarraipena egitea zaila egiten zaie.

Soraluzeko 0-16 urteko pertsonen artean, 4k dute ezgaitasuna aitortuta Gipuzkoako Foru Aldunditik. Mendekotasuna, aldiz, 27k (mendekotasun arina dutenak 15, mendekotasun larria dutenak 8 eta mendekotasun handia daudenak 4).

Bailarako Osasun Mentaleko Zentroan 3 urtetik nerabezaro arteko 13 kasuren

jarraipena egiten dute (2 neska eta 11 mutil). Anitza da kasu horien perfila, baina gehienak patologia mental ertain edo larriak dira. Zentroko profesionalek familia hezitzaileen garrantzia azpimarratu dute elkarrizketan, eta beraien proposamena da hezkuntza jarraibideak lantzeko guraso-eskolak antolatzea.

### 4.3. SORALUZKO ZERBITZU ETA BALIABIDEAK 0-16 URTEKO ADIN TXIKIKOENTZAT ETA BEREN FAMILIENTZAT

#### 4.3.1. OSASUN BALIABIDEAK

BALIABIDEA	DESKRIBAPENA
<p><b>Herriko osasun baliabidea (anbulatorioa).</b></p> <p><b>Bertan daude: Pediatra, familia-medikuak, erizainak eta emagina.</b></p>	<p>Heziketa eta prebentzio <b>programak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Guraso berriei gida bat ematen diete pediatria zerbitzutik, haurraren eboluzioa adinka azaltzen duena. Haurra jaio berria denean guraso batzuek segurtasun falta izaten dute eta pediatararekin lehenengo kontsultetan lasaitasuna eman eta jarraibideak eskaintzen dizkiete. Horretan lagungarriak izan daitezke baita emaginaren erditze aurreko eta ondorengo saioak ere.</li> <li>- 14 eta 16 urterekin egiten diren errebisioetan, drogen eta erlazioen inguruko prebentzioa egiten dute. Ildo horretatik, nerabeen errealitatea ezagutzeko batzuetan oztopo izaten da kontsultara gurasoekin joatea, ematen duten informazioa aldatu egiten baita.</li> <li>- Ikastetxeetatik gai konkrituak lantzeko eskaerak egiten dituzte ambulatorioan (Diabetes, epilepsia, ...). Horrelakoetan, profesionalak joaten dira ikasleekin saioak egitera. Txertaketak egitera ere ikastetxeetara bertaratzen dira.</li> <li>- Emaginak saioen batean parte-hartzen du sexu heziketarekin lotuta ikastetxeetan egiten den formazioetan. Bere zerbitzua azaldu eta beharra dutenean beregana joatera gonbidatzen ditu nerabeak.</li> </ul>

<p><b>Bailarako Osasun Mentaleko Zentroan (Eibar).</b></p> <p><b>Bertan daude: Gizarte langilea, haur- psikologoa eta haur-psihiatra</b></p>	<p>- Ebaluazioa eta diagnostikoa egiten dute, eta beharrezkoa ikusten dutenean, beste zerbitzu batzuetara bideratu. Zerbitzu horiek Osakidetza barnekoak izan daitezke (adibidez, ospitaleratze kasuak Donostiako haurren unitatean egiten dira), edo kanpoko erakundeetakoak (adibidez, Gautenara - Autismoaren Gipuzkoako Elkartera).</p> <p>- Bertatik esku-hartzen dituzten egoeren aurrean, diziplina anitzeko taldean lan egiten dute. Terapia-saioak hilabete bateko edo hilabete eta erdiko maiztasunarekin egiten dituzte, sisteman dauden kasu kopuruaren arabera. Batzuetan, tratamenduan baliabide farmakologikak ere erabiltzen dituzte. Esku-hartzearen iraupena, kasu bakoitzaren larritasunaren arabera da.</p>
--	---

#### 4.3.2. HEZKUNTZA BALIABIDEAK

Haurreskola

Plaentxi Herri Eskola

Soraluzeko Institutua

GURASO ELKARTEA	DESKRIBAPENA
<p><b>Atxolin G. E. (Plaentxi Herri Eskola)</b></p>	<p>Udal Batzorde hauetan parte hartzen du ordezkari batek: Euskarakoa, Hezkuntzakoa eta Haur eta Gazteena. Eskola Kontseiluko bileretan ere bai.</p> <p>Irteerak eta ekintzak antolatzen dituzte, eta herriko dinamiketan parte hartu. Horietan parte-hartzea merkeagoa da guraso elkarteko kideen seme-alabentzat. Udalak hobariak ematen ditu guraso elkarteko kide egiteko baliabide gutxiko familientzat.</p>
<p><b>Keixeta G. E. (Soraluzeko Institutua)</b></p>	<p>Udal Batzorde hauetan parte hartzen du ordezkari batek: Euskarakoa, Hezkuntzakoa eta Haur eta Gazteena.</p> <p>Irteerak eta ekintzak antolatzen dituzte. Guraso elkarteko kideen seme-alabentzat merkeagoa da horietan parte hartzea.</p>

### 4.3.3. AISIALDI ETA KULTUR ESKAINTZA

Soraluzeko sustapen arloak sekulako garapena izan du azken urteotan. Herrialde mailako *Gaztematika* sarearekin bat egin zuen Udalak aurreko legegintzaldian.

Herriko aisialdi eta kultur eskaintzak ekarpen garrantzitsua egiten dio euskararen erabilera normalizatzeko ahaleginari, eskaintza horren zati handi bat euskaraz bideratzen den neurrian. Hurrei begira Udalak berak zein herriko elkarte gehienek antolatzen dituzten ekintzak euskara hutsean burutzen dira. Ondorengo taulan aurki daitezke abian dauden baliabideak eta eragile ezberdinen bitartez antolatzen diren ekintzak:

EKINTZA / BALIABIDEA	ANTOLATZAILEA	DESKRIBAPENA
<b>Udaleko Haur eta Gazteen Batzordea</b>	Udala	Batzorde horren helburua da herriko haur eta gazteei zuzendutako politikak artikulatzea. Arreta berezia behar duten adin-tarteak izanik, beharrezkoa ikusten da hausnarketarako gune propioa edukitzea. Horregatik, udaletxean biltzen dira alderdi politikoak, guraso elkarteak eta Kukumixo aisialdi taldea.
<b>Ludoteka</b>	Udala Kudeaketa Pil-pilean Euskara Elkarteak egiten du	Astelehenetik ostiralera 4-10 urte bitartekoentzat zerbitzua eskaintzen du ikasturtea zehar. Gabonetan eta Aste Santuan ekintza bereziak antolatzen dituzte hurrekin egiteko, irteerak barne. Herriko egitasmo eta ekintza puntualetan parte hartzen dute ikasturtean zehar. Udan itxita egoten da, ludotekara beharrean Udalekuetara joaten dira nahi duten haurrak.  Duela hiru urte, zerbitzuaren egoera berrikusi zen; profesional, haur eta familien artean, nola hobetu aztertu zen. Ondorio honetara heldu ziren: beharra zegoela ordutegiak aldatu, opor garaian zerbitzua eskaini, ekipamenduak berritu, eta langileen

		<p>lan-baldintzak hobetzeko.</p> <p>Prozesu horri esker, berrindartu egin da Ludoteka. Ordura arte, LH3tik aurrera parte-hartzea murrizta izaten zen; orain, aldiz, asko igo da erabiltzaileen kopurua.</p>
<b>Gaztelekua</b>	<p>Udala.</p> <p>Kudeaketa</p> <p>Pil-pilean Euskara</p> <p>Elkarteak egiten du</p>	<p>Ostiraletan eta asteburuetan eskaintzen zaie zerbitzua 11-16 urteko nerabeei urtean zehar. Aste Santu eta Gabonetako oporretan ekintza bereziak egiten dituzte nerabeekin.</p> <p>Horrez gain, nerabeek asanblada bitartez irteera-proposamenak egiten dituzte, eta ahal den heinean gauzatzen dira. Udan itxita egoten da, eta nerabeek ez dute eskaintza alternatiborik.</p>
<b>Udal Liburutegia</b>		<p>Batez ere 4-7 urte bitarteko haurrek erabiltzen dute liburutegia, gurasoez lagunduta. Hortik aurrera, gutxiago eta bakarrik joaten hasten dira, eta neskak gehiago izaten dira mutilak baino. Gainera, adin horretatik aurrera eskolarekin lotuta dago batez ere liburutegiaren erabilera: eskolarako irakurri behar dituzten liburuak hartzera, etxeko lanak egitera edo ikastera joaten dira. 15 urtetik gorako nerabeak gutxi joaten dira.</p> <p>Liburuen aukeraketa eskolak baldintzatzen duenean, euskaraz irakurtzen dute. Baina aukeraketa libre denean, helduenek gaztelerara gehiago jotzen dute.</p> <p>Liburutegiaren erabilera ez da liburutara mugatzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 4 ordenagailu daude eta baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonak erabiltzeko joera dute.</li> <li>- Ikastetxeekin elkarlanean, idazketa eta sormen tailerra antolatzen da urtean behin LH 4ko</li> </ul>

		<p>ikasleentzat. Eskola orduetan, astebetetz, egunean ordu bete eta 15 minutuko saioak.</p> <p>- Euskal Herriko IGO euskaraz irakurtzeko kanpainan parte hartzen du elkarlanean herriko hainbat baliabiderekin: Pil-Pilean, Kultura Saila, liburudendak,... Kanpainaren barruan besteak beste ipuin kontaketak egiten dira.</p>
<b>Soraluzeko musika eskola</b>		
<b>Euskarazko zine emanaldiak</b>	Udala eta Atxolin Guraso elkarteak	Neguko sei igandetan euskarazko pelikulak ematen dituzte.
<b>Antzerki emanaldiak</b>	Udala	Urtero hainbat emanaldi antolatzen saiatzen dira Udaleko sail ezberdinen eskutik. Guraso Elkarteak ere antolatu izan ditu.
<b>“Domekak aterpean” egitasmoa</b>	Atxolin Guraso Elkarteak eta Kukumixo Aisialdi Taldea	Neguko zazpi igandetan, kiroldegian aisialdiko eskaintzak antolatzen dira haurrentzat.
<b>Jolas tailerrak</b>	Atxolin Guraso Elkarteak eta Kukumixo Aisialdi Taldea	Klaseak goizez bakarrik direnean, arratsaldeetarako jolasen tailerrak antolatu dituzte aurten.
<b>Egun berezietako ekintzak</b>	Udala eta herriko hainbat eragile	<p>- Gabonetako kabalgata: Beti Prest Elkarteak.</p> <p>- Olentzero eta Mari Domingiren kalejira: Atxolin Guraso Elkarteak</p> <p>- Elkarbizitza Eguna: Atxolin Guraso Elkarteak antolatzen du 2 urtetik behin.</p> <p>- Herriko festak</p> <p>- Inauteriak eragile-talde baten artean. Txokolatada: Atxolin Guraso Elkarteak</p>

<b>Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna (azaroaren 20)</b>	Udala	Helburua da adin txikiko pertsonei zein beraiekin lotura duten pertsonei ikusaraztea zeintzuk diren haur eta nerabeen eskubideak.
<b>Sormena lantzeko ekintzak</b>	Udala	Jaietako kartel lehiaketa, robotika eta bideojokoen sorkuntza, literatur sorkuntza, idazlan lehiaketa...
<b>Euskal Dantzen ikastaroa</b>	Urrats Dantza Taldea	6 urtetik gorakoek Euskal Dantzak ikasi eta kalean emanaldiak egiteko aukera eskaintzen da.  Momentu honetan, 38 neska eta 3 mutil daude izena-emanda.

#### 4.3.4. KIROL BALIABIDEAK / ELKARTEAK

BALIABIDEA / ELKARTEAK	DESKRIBAPENA
<b>Udal Kiroldegia</b>	<p>Udal kiroldegian burutzen da, batez ere, herriko kirol eskaintza.</p> <p>Eskola-kirolaren baitan, judo, eskalada, esku-pilota, eskubaloia, futbola eta errugbya egiten dituzte Soralezeko LH 3tik LH6ra arteko haurrek. Haur kopurua txikia dela eta, asteburutako partidak Eibarkoekin batera egiten dituzte. Aurten, LH 3-4ko 34 haur daude apuntatuta (6 neska eta 28 mutil) eta LH 5-6ko beste 34 (3 neska eta 31 mutil). Ikus daitekeenez, nesken kopurua oso txikia da.</p> <p>Eskola-kirolaz gain, honakoa da herriko kirol eskaintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Spinning gaztea (12-16 urte).</li> <li>- Igeriketa (3 urtetik aurrera).</li> <li>- Dantza garaikidea Biraka Dantza Elkartearekin. Batez ere neskek parte hartzen dute; LH 1-6 bitarteko 50 daude, gutxi</li> </ul>

	<p>gorabehera.</p> <p>Bestalde, udan kirol udalekuak eskaintzen dira bi astez. LHko zein DBHko ikasleentzat irekia dago egoten da eskaintza, nahiz eta DBHkoek ez duten izena ematen.</p>
<b>Soraluzeko Pilota Elkartea</b>	6 urtetik gorako hurrek izena-eman dezakete pilota elkartean. 50 inguru daude aurten, eta horietatik 2 dira neskak.
<b>Soraluzeko futbol taldea</b>	90 mutil eta neska 1 daude izena-emanda. Alebin kategoriako azken urtera arte, taldeak mistoak dira; baina zaharragoak direnean, neskek jokatu nahi badute, nesken taldea osatu behar dute. Soraluzen ez dute nahikoa neskek izena ematen, eta horregatik, 12 urtetik aurrera inguruko herrietara joan behar izaten dute jokatu nahi duten horiek.
<b>Ukaldi Judo kluba</b>	
<b>Mendi taldea</b>	

#### 4.3.5. BERDINTASUN EGITASMOAK

UDAL BERDINTASUN SAILA
<p>- Udalak Parekidetasun Batzordea du. Batzordea herritar guztiei irekita dago, gaur egun bertan parte hartzen dutenak, Korner Moreko kideak eta alderdi politiko ezberdinak dira.</p> <p>- Udalak, Laia Naia Elkartearen bitartez, <i>sexu heziketa eta genero-indarkeriaren prebentzioa</i> programa eskaintzen die urtero L H 6.mailako ikasleei. Horrez gain, beren guraso eta irakasleekin ere saio bat egiten da gaia lantzeko.</p> <p>- DBH 1. eta 3. mailetan, neskekin autodefentsa feministalantzen da EMAGIN Elkartearen bitartez; mutilekin, aldiz, maskulinitatealXA sexualitate-eskolaren bitartez. Eta neska-mutilekin, tratu onen inguruko saioak egiten ditu IXA sexualitate-eskolak.</p> <p>- Udal Berdintasun Saitetik, ekintza puntualak antolatzen dira hainbat kanpainaren baitan. 5 kanpaina aurrera eramaten dira: martxoak 8, homofobiaren aurkakoko eguna (M17), harrotasun eguna (E28), azaroak 25 eta jai parekideen aldekoa. Korner Morea talde</p>



feministak ekintza horietan parte hartzeko gonbidapena zabaltzen diete herriko neska eta emakume guztiei. 2018ko Martxoak 8ko mobilizazioetan, esaterako, DBHko ikasle askok parte hartu zuten.

- Aurreko kanpainen bueltan, ikastetxeei zuzendutako saioak (ipuin-kontaktak, antzezlanak, rap feminista tailerra...) antolatu izan dira gai desberdinak lantzeko: aniztasun sexuala, genero-indarkeriaren prebentzioa, berdintasuna...

- Aurten, Udal Liburutegiarekin batera, umeei zuzendutako ipuin ez-sexisten gida bat osatu eta zabaltzeko asmoa dago.

- Parekidetasun Batzordeak diru-partida bat dauka emakumeen ahalduntzea sustatzera bideraturiko ikastaroak antolatzeko. Hori horrela, urtero emakumeei eta neska gazteei zuzendutako autodefentsa feminista inguruko saio bat edo bi antolatu izan dira. Horrez gain, beste urte batzuetan Korner Moreko kideek eskatutako tailerrak antolatu izan dira.

## KORNER MOREA

Udalak diru-laguntza ematen dio urtero Korner Morea talde feministari Beldur Barik programa lantzeko nerabeekin. Azken bi urteetan, herriko nerabe-talde batekin hausnarketa-prozesua gauzatu dute, eta horren ondoren, Beldur Barik bideo lehiaketan parte hartu dute. Dena den, nerabe gehiagorengana iristeko helburuarekin, gaiaren lanketa egiteko modua birplanteatzen ari dira.

Korner Moreak herrian Emakumeen Txokoa sortzea eskatzen du.

### 4.3.6.SORALUZE, HERRI HEZITZAILEA

2014. urtearen inguruan, *Alkarrekin Soraluze eginez* egitasmoa martxan jarri zen Soraluzen. Izan ere, herria biziberritzeko beharra adierazten zuten datuek eta herritarren pertzepzioak. Horri aurre egiteko, prozesu parte-hartzailea abiatu zen, non *Herri Hezitzaile* izateko nahia azaleratu eta "Herrixak Hezi" Herriko Hezkuntza Proiektua sortu zen. 2016an 4 urterako Plan Estrategikoa martxan jarri zen, eta horretarako koordinatzaile bat kontratatu.

"Herrixak Hezi" proiektuaren lan-ildoak dira pertsonen garapen integrala, inklusioa, parte hartzea, herri identitatea, elkarbizitza eta elkartasuna, euskara, hezkidetzak, kulturartekotasuna, sormena, jolasaren bidezko hezkuntza, eta iraunkortasuna.

Aurreko ildo horiek lantzeko, bederatzi proiektudiseinatu ziren. Abian jarri dirahorietako batzuk, eta nahiz eta puntu desberdinetan dauden, aldi berean garatzen ari dira. Garatzen joan diren heinean, errealitatera egokitzeko beharrezko aldaketak egin zaizkie. Honako hauek dira abiapuntu bezala diseinatu ziren proiektuak:

- Eskola bidea: herriko haurrak eskolara oinez eta bakarrik joatea sustatu eta erraztu nahi duen ekimena da, helduen laguntzarik gabe eta bide seguruetatik.
- Zelan hezi, holan hazi: hezkuntza eragileek ezartzen dituzten hezkuntza-metodologietan sakontzen lagunduko duen egitasmoa.
- Eskola herritarra: hezitzaile, irakasle, guraso, familia, ikasle, elkarteetako kide eta herritarrei oro har formakuntza eskainiko dien egitasmoa.
- Eskutik eskura: behar bereziak dituzten ikasleei eskolaz kanpoko laguntza ematea bultzatzen duen ekimena da. Herritarrak izango dira emaleak.
- Aukeran danok: zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrek hezkuntza araututik kanpoko eskoletan parte hartu ahal dezaten, diru-laguntzak eskainiko dituen programa.
- Jolasarekin hezkuntza plazara: lau urtean behin egun oso batez hezkuntza kalera aterako duen ekimena. Hezkuntza-eragileek kalean jardungo dute, eta jolasak protagonismo berezia izango du.
- Soraluze bizi, Soraluze izan: herriaren historia eta kultur ondarea jasotzen dituzten unitate didaktikoak sortzeko asmoa duen ekimena.
- Sormen eta jabeakuntza eskola: adin ezberdinetako herritar sortzaileak batuko dituen espazioa eta sortzaile ez denari gaitasun hori garatzeko aukera eskainiko dion egitasmoa.
- Haurren herriari ekin: jolasgune eta parke-ereduen inguruko hausnarketa eta, beharrez gero, eraldaketa bideratzeko ekimena.

## **5. - ANTZEKO ERREALITATE SOZIODEMOGRAFIKOA DUEN HERRIA: ORDIZIA, HIRI HEZITZAILEA**

Soraluzeko haur eta nerabeen egoera aztertu ondoren, interesgarria da errealitate soziodemografiko antzekoa duen herri bat ezagutu, eta bertan martxan dauden egitasmoetan sakontzea. **Ordizia** izan daiteke erduetako bat.

*Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, 2016an Ordiziak 9.875 biztanle zituen, eta horietatik %14,1 etorkina zen. Bestalde, Eustateko datuen arabera, urte horretan langabezi tasa %13,1ekoa zen.

Herritarren ongizatea bultzatzeko saiakera moduan, alde batetik, hiri hezitzaileen egitasmoan txertatu zen Ordizia 2008an. Bestalde, gizarte-bazterketa arriskuei aurre egiteko programak garatzen ditu, jarraian azalduko direnak, besteak beste:

### **KALE HEZIKETA PROGRAMA**

Udalaren webgunetik ateratako informazioaren arabera, ingurune irekiko esku-hartze programa soziohezitzailea da, kalea eremu hezitzaile bezala hartu eta eremu ez-formal eta alternatibo bezala eraikitzen duena. Hartzaileak, zailtasunak dituzten 11-18 urte bitarteko gazte eta nerabe ordiziarrek, beraien familiak eta komunitate osoa dira.

Garapen pertsonalean eta arlo sozialean zailtasunak dituzten Ordiziako gazte eta nerabeak, normalizatutako inguru eta herritar guztiei zuzendutako baliabideetan eta baliabide egokituetan (bikote taldeak, familia, ikastetxea, lan merkatua, kalea, baliabide komunitarioak....) txertatu ahal izatea du helburu.

Bi dimentsiotan banatzen dabertan egiten den lana:

- *Arreta zuzena*: programaren hartzaileak diren pertsonetikiko kontaktua eta erlazio zuzena biltzen duena. Hiru maila desberdinetan gauzatzen da: banakako, taldeko eta komunitateko hezkuntza proiektuetan.

- *Zeharkako arreta*: programaren garapenerako gauzatu behar diren plangintza, gestioa eta koordinazioa biltzen dituena.

## IMMIGRAZIO TEKNIKARIA

Ordiziako Udalak, Gizarte Zerbitzuen baitan, immigrazio teknikari bat dauka kontratatuta. Hainbat ekimen antolatzen ditu herriko elkarbizitza eta etorkin iritsi berrien integrazioa sustatzeko. Jarraian azalduko dira:

- **Iritsi berrien harrera programa**: Helduentzat informazio saioak dira, 2 hilabeteen zehar astean 2 egunetan egiten direnak. Horietan, helburua da etorkinek herriko baliabideak eta elkarteak ezagut ditzaten, horietan parte-hartuz herrian integratzeko. Horretarako, herriko eskaintzaren berri ematera joaten dira teknikariak, sindikatuetakoa kideak, herriko elkarteak, festa-antolatzaileak, udaltzainak... Immigrazio teknikariak dio arrakasta izan duela aipaturiko programak.
- **Zurumurruen kontrako kanpaina**: Hitzaldiak antolatzen dira herritar eta teknikarientzat, elkarbizitza oztopa dezaketen aurreiritziak apurtzeko eta errealitatea hainbat ikuspegitatik ezagutzeko.
- **Elkar-ezagutza espazioak**: Jatorri ezberdineko pertsonak elkarrekin parte hartu dezaten ekintzak antolatzen dira. "Ordizia kolore" egitasmoak, esaterako, herriko espazio normalizatuetan etorkinek parte hartzea edo kulturen elkarrekintzarako gune bereziak sortzea ditu helburu.

Immigrazio Teknikariak ez du haur eta nerabe etorkinekin zuzenean lan egiten, eta hori da ikusten duen hutsune nagusia. Haur txikienean kasuan, uste du eskoletan lan egin beharko litzatekeela haur, guraso zein irakasleekin. Horrela, sustatu behar da kulturen arteko elkarbizitza positiboa herrira zabaltzea eta etorkinek herriarekiko atxikimendua sentitzea.

Nerabeei dagokienean, uste du arreta gutxiegi ematen zaiela. Besteak beste, garrantzitsua iruditzen zaio arreta berezia jartzea nerabetan bizilekua aldatu behar izan dutenei (horrek sor ditzakeen sentipenengatik), edo arrazoi kulturalak medio, aisialdi eskaintzan parte hartzen uzten ez dietenei.

Ordiziako Udaleko Euskara Sailak, "haur eta gazte txokoa" dauka haur edo nerabe etorri-berrientzat. Programa horretan, eskola-errefortzuaren eta aisialdiko ekintzetan parte-hartzearen bitartez, euskaraz ikastea lortu nahi da.

## 6. BEHARREN AZTERKETAREN ONDORIOAK

Azterketa honen lehen bi faseak (Informazio bilketa eta Landa lana) amaitu ondoren, bi fase horietan eskuratutako informazio guztia aztertu eta hainbat ondorio atera ditu LORRATZ Elkarteak.

Ateratako ondorioen aurkezpena Haur eta Nerabeen Beharren Sailkapena jarraituz egingo bada ere, ezinbestekoa ikusten da, aldez aurretik Azterketa honek agerian uzten dituen **datu esanguratsu hauek** jasotzea ere:

- Soraluzen 0-16 urte bitarteko 606 haur/nerabe daude:
  - %74,42 Soraluzen jaiotakoak da
  - %25,58 Soraluze kanpotik etorritakoa da, horietatik:
    - %9,9 EAEtik etorritakoa
    - %6,93 Estatutik etorritakoa
    - %8,75beste herrialdeetatik etorritakoa
- Soraluzen 0-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten 62 familiek jasotzen dituzte Diru Laguntza Publikoak (DBE-RGI eta GLL-AES):
  - 45 familiek jasotzen dute DBE-RGIa (horietatik 14ek GLL-AESak ere bai). 25 famili bertakoak dira eta 20 familia, aldiz, etorkinak.
  - 17 familiek GLL-AESak
- Famili ugari, ez dituztelako baldintzak betetzen, ezin dituzte ez DBE-RGIa ez GLL-AESak jaso, CARITASi laguntza eske jo behar izaten dute.
- LHko ikasleen % 45ek eta DBHko ikasleen % 67k beka jasotzen dute
- 0-16 urte bitarteko 4 haur/nerabek dute ezgaitasuna

- 0-16 urte bitarteko 27 haur eta nerabek dute menpekotasuna:
  - 15ek menpekotasun arina
  - 8k menpekotasun larria
  - 4k menpekotasun handia
- 3-16 urte bitarteko 13 haur eta nerabe dago artatuta Eibarko Osasun Mentaleko Zentroan.
- Nahiz eta haur eta nerabeen euskararen inguruko ezagutza maila altua izan, euskararen erabilera nabarmen ari da jaisten herriko helduen zein haur eta nerabeen artean.

#### **PREMIA FISIKOEN INGURUKO ONDORIOAK:**

- Soraluzeko **egoera sozioekonomikoak zailtasunak** sortzen dizkie familia askori, eta ondorioz, familia horietako haur eta nerabeei. Horrek esparru askotan eragiten die (adibidez, egoera txarrean dauden etxebizitzetan bizi dira batzuk, oinarrizko premiak asetzeko zailtasunak dituzte askok, besteak beste, elikadura nahikoa eta orekatua, osasuna, ...).
- Haur eta nerabeak dituzten famili askoengan ohitura osasungarrien inguruko jabetza falta dago –elkadura orekatua, kirola egitea-. Famili hauetako helduek ez dituzte ohitura osasungarriak jarraitzen, beraz, ez diete seme-alabei ohitura horien inguruko eredu zuzena/egokia eskaintzen. Guzti honen ondorioz, arrisku handia dago famili horietako haur eta nerabeek osasun arazoak garatzeko gehiegizko pisua, aho arazoak, besteak beste-.
- Osasun sistemako profesionalek uste dute elkadura eta kirolarekin lotutako **ohitura osasungarriak** sustatzeko lan tinkoa egin edo egiten jarraitu behar dela. Nerabeen kasuan, sexu harreman seguruen inguruko kontzientziazioa egiten jarraitu behar dela ere azpimarratzen dute.
- Orokorra izan da **kirol eskaintza eta baliabideak** hobetzeko edota areagotzeko eskaera, bereziki nerabeei eta neskei zuzendutakoa. Futbola da

kirolen artean gailentzen dena. Kirolaren bitartez baloreak ikastea sustatu behar da, lehiakortasuna alde batera utziz.

- Haur eta nerabeen osasunari dagokionean, antzeman diren bestelako kezka nagusiak honako hauek dira: herria (kaleak, ibaia) zikina egotea, kaleanaire libreko ekintzak burutzeko leku atsegin eza eta larrialdi-zerbitzuak falta izatea.

### **SEGURTASUN PREMIEN INGURUKO ONDORIOAK:**

- Gizarte Zerbitzuen eta gainontzeko Zerbitzu **Sistemen** –Eskola Sistema, Osasun Sistema, Sustapen Sistema- **arteko Koordinazio Sistema ez dago behar beste garatuta**. Era koordinatuan eta elkarlanean aritzea ezinbestekoa da adin txikikoen ahultasun, zailtasun edota ustezko babesgabetasun egoeren antzematea, jakinarazpena eta jarraipena egitean.
- Eragile ezberdinen pertzepzioa da adin txikiko asko daudela babesgabetasun egoeran, Gizarte Zerbitzuek ez dituztela nahiko baliabide horiei aurre egiteko, eta honen ondorioz, sarri **egoerak larritu egiten direla**.
- Egoera sozioekonomikoa zein soziodemografikoa medio, **genero-indarkeria** kasuak areagotu edo larritzeko arrisku handia sumatzen da. Horrek Esku-hartze Prebentiboak ezinbestekoa egiten du.
- Gurasoek kezka handia erakutsi dute **haurren segurtasunaren** inguruan. Herrian emakume zein haurrentzat seguruak ez diren edota arriskutsuak diren hainbat gune identifikatuta eta Mapa Morean jasota daude. Haur eta nerabeek abandonatutako hainbat gune berriztatzea eskatzen dute.
- Nerabeek, gauez, **hainbat lekuetatik ibiltzeko beldurra** adierazten dute farola gutxi daudelako, edo daudenetatik, asko itzalita daudelako. Nerabe neskek, hain zuzen, eta horien gurasoek ere, segurtasun falta sumatzen dute festa giroan, etxera joateko orduan.
- Nerabeek zein guraso batzuek **sare sozialekiko** segurtasun falta sentitu eta adierazten dute.



## PREMIA EMOZIONALEN INGURUKO ONDORIOAK:

- Etxetik kanpo lan egiten duten guraso ugari zailtasunak adierazi dituzte seme-alaben **zaintza eta lana uztartzeko**. Horregatik, gurasoek beste pertsona batzuen laguntza bilatu behar dute haurren zaintzarako (aitona-amonak, familiatik kanpoko pertsonak edota profesionalak...).
- Familia barruan, oraindik, haur txikiaren zaintza batez ere amek egiten dute; eta, hurrek ere, amarekin lotzen dituzte **zaintza-rolak**.
- Nerabe zaharrenean artean, batzuek **gurasoekin edo familiarekin denbora gehiago** egon nahiko lukete. Nerabe ugari denbora asko ematen dute etxean, bakarrik, inongo gainbegiraketarik gabe.
- Guraso askok garrantzia handiagoa ematen diete seme-alaben behar materialei emozionalei baino.
- Haur hezkuntzan eta Lehen hezkuntzan, gurasotasunean zailtasun gehienak dituzten gurasoak dira eskola-sistematikiko eta seme-alaben **eskola prozesuarekiko** interes gutxien erakusten dutenak.
- Nerabe ugari daude, eskola kontuetan, etxetik inongo jarraipenik egiten ez dietenak, gurasoek ikasketei garrantzia ematen ez dietelako.
- Haur eta nerabe askok **herriarekiko atxikimendu-falta** erakutsi dute. Horrez gain, askok etorkizuneko Soraluzerekiko ikuspegi ezkorra adierazi dute.

## GIZARTE PREMIEN INGURUKO ONDORIOAK:

- Saiakera nabarmena egin du Udalak haur eta neraberik ez geratzeko herriko kultur, kirol eta aisialdi eskaintzatik kanpo arrazoi ekonomikoengatik.
- Gurasoek beren seme-alabentzat **aisialdi eta kultur eskaintza** anitzagoa proposatzen dute. Arrazoen artean egon daitezke, alde batetik, lana eta

seme-alaben zaintza uztartzeko aurkitzen dituzten zailtasunak eta, bestetik, haurren adina igotzen joan ahala, eskaintza jaisten joatea.

- Haur eta nerabeek ere areagotu nahi dituzte aisialdi- eta kultur- eskaintza eta baliabideak. Batez ere nerabeen kasuan, egungoa oso murrizta dela uste dute.
- Haur eta nerabeen aisialdirako eta sozializatorako **joerak aldatu** egin dira. Teknologia berriek presentzia nabarmena hartu dute joera horietan, haurrak txikiak direnetik hasita. Nerabezeroan, denbora asko igarotzen dute sare sozialak erabiltzen.
- Nerabeek aisialdian egiten dituzten ekintzen inguruan, **generoaren arabera desberdinak** direla ikusi da: mutilek kirola egiten dutela esaten dute, eta neskek, lagunekin egoten direla (ekintza geldoagoetan). Nerabezeroaren azken urteetan, lokaletan egotea edota inguruko herrietara joatea gustatzen zaie.
- **Udal Gaztetxokoko** eskaintza murrizta da nerabeentzat: 11-12 urtekoentzat ostiraletan dago irekita bakarrik, eta 13-16 urte bitartekoentzat larunbat eta igandetan. Gainera, nerabeek ez dute Gaztetxokoa asko erabiltzen.
- Gero eta **elkarbizitza arazo eta liskar** gehiago antzematen dira haur eta nerabeen artean. Horien arteko harremanetan eragina du helduen arteko giroak.
- Haur eta nerabeen arteko harremanak lantzeko, eta sozializazio ohiturekin lotutako kontzientziazioa barneratzeko (adibidez, drogen kontsumoa) **prebentzio-lan gehiago** egitearen falta sumatzen da.
- Ikuspegi kulturalak haur eta nerabe etorkin ugariren sozializazioa baldintzatu eta mugatzen du. Kultura ezberdineko herritarren **elkarbizitza eta elkar-ulertzea** sustatu behar dira. Udalak Harrera protokoloa sortu du horretarako, eta oso positiboa izan daiteke, baina jarraipena eman behar zaio eta norbaitek izan behar du horren ardura.

## PREMIA KOGNITIBOEN INGURUKO ONDORIOAK:

- 2 urtetik beherako haurren %80 inguru **ez dago eskolatuta**, eta ezta ere 3-6 urte bitartekoen %13.
- Ikasle ugarik eskola-prozesu normalizatua jarraitzeko zailtasunak dituzte.
- Ikasle nerabe ugarik Institutua uzten dute Eskola Graduatua bertan eskuratu gabe.
- Nerabeek zein beraien gurasoek nahiko **ikuspegi negatiboa** dute ikastetxearekiko.
- Ikasketei dagokienez, ez dago erabat bermatuta neska eta mutilen **aukera-berdintasuna**. Izan ere, oraindik ikasketa-mota desberdinak (alorrei eta mailari dagokienean) aukeratzen dituzte neskek eta mutilek.
- Ikastetxeen **erronka nagusiak** honakoak dira:
  - Ikasleen arteko harreman osasuntsuak sustatzea.
  - Euskararen egoera kezkarriari aurre egitea.
  - Formazio akademikoa indartzea hezkuntza-prozesuan zailtasunak dituzten ikasleen motibazioa eta errendimendua bultzatzeko.
  - Guraso zein ikasleek eskolarekiko duten ikuspegia hobetzea.
  - Eskolen arteko trantsizioa erraztea lehen hezkuntzatik bigarrenera eta bigarren hezkuntzatik batxilergora/zikloetara aldaketa ahalik eta erosoena izan dadin ikasleentzat.
  - Neska eta mutilen ikasketa-aukeran berdintasuna sustatzea.

## PREMIA BEREZIEN INGURUKO ONDORIOAK:

- Premia bereziak dituzten ikasle **kopurua altua da**. Honek Eskoletako eguneroko dinamikan eragin handia du, ikasle hauek sozializazio zailtasun asko dituzte, eta behar duten jarraipena egitea zaila egiten da.

- Premia bereziak dituzte haur eta nerabeen **gurasoekin hezkuntza jarraibideak** lantzeko beharra dago.

## 7. ORIENTABIDEAK SORALUZEEKO UDALARENTZAT

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroak definitzen duen **“Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean Eskuhartzeko Zerbitzua”** inplementatu, bere baitan honako Programa hauek garatu, hobetu edo martxan jarri:
  - Zailtasun egoeran dauden haur eta nerabeei zuzenduriko **Ingurune Irekiko Programa** -Kale Heziketa Programa-, martxan jarri; bertatik esku-hartze marko ezberdinetatik lan egingo litzateke (marko indibiduala, taldeko markoa eta marko komunitarioa) eta esku-hartze modalitate ezberdinak garatu (Eskola motibazioa sustatzeko Egitasmoak, Eskola absentismoari aurre egiteko Egitasmoak, Bizitza Aktiborako Trantsitua egiteko Egitasmoak, ...).
  - Adin txikikoen larritasun maila arina eta ertaineko babesgabetasun egoerei erantzun ahal izateko **Familia Esku-hartze Programa** indartu, aurrekontua handituz eta esku-hartze motak dibertsifikatuz (familia esku-hartzesozio-hezitzailea, famili esku-hartze terapeutikoa, laguntza psikologikoa haur, nerabe eta helduentzat, ...).
  - Arrazoi ezberdinengatik (gizarte bazterketa, genero indarkeria, ...) zailtasun egoeran dauden pertsona helduekin **akonpainamendu soziohezitzaileak** garatu.
  - Seme-alaben behar ebolutiboak ulertu eta erantzuten laguntzeko, eta amatasun/aitatasunaren inguruan trebatzen laguntzeko, **Guraso Eskola** martxan jarri.
  - Arrazoi ezberdinengatik (bizipenen ondorioak, ekonomikoak, kulturalak, ...) seme-alaben beharrak ulertu, barneratu eta erantzuteko zailtasunak dituzten gurasoekin **Guraso Laguntza Taldeak** garatu.
  - Herritarren artean (haur, nerabe eta heldu) elkarbizitza hobetzen lagunduko duen **Bitartekaritza Komunitarioa**.

- Kultura eta jatorri ezberdinetako herritarren arteko **Bitartekaritza Kulturala**.
- **Genero-indarkeria egoeren detekzioa** hobetzea.
- **Udal Diru Laguntza** berria sortzea edota Eusko Jaurlaritzak GLL-AESetarako ematen duen diru kopurua udal ekarpenarekin handitzea, egoera ekonomiko estua izatearen ondorioz, seme-alaben oinarritzko beharrak (elikadura nahikoa eta orekatua, osasuna, ...) asetzeko zailtasunak dituzten familiei lagundu ahal izateko.
- **Adin txikikoen babes-sistema indartzea:**
  - Adin txikikoen babesaren inguruan, eta elkar ezagutzatik abiatuta, Gizarte Zerbitzuak eta gainontzeko Zerbitzu Sistemen arteko **Koordinazio Sistema garatzea**, Hezkuntza, Osasun eta Sustapen Sistemak lehenetsiz.
  - Haur eta nerabeekin lan egiten duten **eragileak formatzea** adin txikikoen babesaren inguruan (marko juridikoa, babes sistemaren arkitektura, babesgabetasun egoeren antzemateko adierazleak eta jakinarazpenak egiteko prozedura, Foru Aldundiaren babes-protokoloa).
- Herriko **eskaintzahaur eta nerabeen beharrei** egokitzen jarraitzea:
  - Gaztetxokoa Nerabe Zerbitzua bilakatzea, nerabeei zuzendutako arreta-denbora zabalduz eta dibersifikatuz, nerabeen ikuspegia, iritziak, proposamenak, etab. kontuan hartuz, eskaintza beraien beharretara egokitzeko.
  - Nerabeei zuzendutako kultur eta aisialdi eskaintza zabaltzea.
  - Kirol baliabideak eta eskaintza hobetu edota zabaltzea, bereziki nerabeei eta neskei zuzendutakoa.
- Herriko **guneak hobetzen** jarraitzea:

- Haur eta nerabeen aisialdirako guneak areagotu eta daudenak hobetzea (parkeak, parke estaliak, nerabeentzako guneak, igerilekuak, ...).
  - Abandonatutako hainbat gune haur eta nerabeen erabilerarako berritu edota egokitzea.
  - Kanean edota aire libreko ekintzak burutu ahal izateko atseginak eta seguruak izango diren lekuak sortu edota egokitzea.
  - Herrian emakume zein haur eta nerabeentzat identifikatuta dauden seguruak ez diren edota arriskutsuak diren guneetako segurtasuna hobetzeko neurriak hartzea.
  - Kaleak zein haurrentzako guneak gune seguruak izan daitezen neurriak hartzea.
  - Kaleak eta ibaia garbiak egongo direla bermatzeko dagokien neurriak hartzea.
- Izaera **hezitzailea eta prebentiboa** duten ondorengo ekimenak bultzatzea:
    - Hezkuntza eta Sustapen Sistemekin batera, neska eta mutilen arteko berdintasuna eta Hezkidetza bultzatu eta Genero indarkeria saihesteko Esku-hartzeak edota Programak garatzen jarraitzea.
    - Gaur egun burutzen den kontzientziazio lanari jarraipena emanaz, Osasun, Hezkuntza eta Sustapen Sistemarekin batera, elkarlanean, Nerabeei zuzendutako Formakuntza Afektibo-sexualaren inguruko Programa Hezitzaileak garatzen jarraitzea.
    - Osasun, Hezkuntza eta Sustapen Sistemarekin batera, elkarlanean, herritarren artean (haur, nerabe eta heldu) elikadura eta ariketa fisikoaren inguruko ohitura osasungarriak sustatzera bideratuta egon daitezkeen Programa Hezitzaileak garatzea.

- Osasun, Hezkuntza eta Sustapen Sistemarekin batera, elkarlanean, Nerabeei zuzendutako Prebentzio Programa Hezitzaileak garatzea (Kontsumoak, Gizarte Sareak, ...).
- Herrian **larrialdi-zerbitzuak** egon daitezen udalak bere esku dagoena egitea.



## 8. BIBLIOGRAFIA

- Haurren Eskubideen Konbentzioa eta Hitzarmena. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako web orria:

<http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CRC.aspx>

- Espainiar Estatuko 1/1996 Lege Organikoa: *Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia*. Estatuko Boletín Oficialaren web orria:

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-8470-consolidado.pdf>

- Euskal Autonomia Erkidegoko 3/2005 Legea, *otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0501476a.pdf>

- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, *abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

- Euskal Autonomia Erkidegoko 185/2015 DEKRETUA, *urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa*:

<https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015004561>

- Gaztematika (2015): *Gipuzkoako Haur eta Gazteen sustapenerako sistema azaltzeko fitxak*. Gaztematikaren web orria:

[http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/0/Teknikarien+aurkezpena+gaztematika\\_euskopt.pdf/49bbe20d-abe3-4c61-8300-6ef8c334ce7c](http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/0/Teknikarien+aurkezpena+gaztematika_euskopt.pdf/49bbe20d-abe3-4c61-8300-6ef8c334ce7c)

- Gaztematika (2014): *Gaztematika: hurbilpen labur bat*. Gaztematikaren web orria: [http://www.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/99171/Gaztematika\\_hurbilket\\_a\\_eus.pdf/b44f4945-a6ef-4909-be7d-2cf6e46aec85](http://www.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/99171/Gaztematika_hurbilket_a_eus.pdf/b44f4945-a6ef-4909-be7d-2cf6e46aec85)

- Gaztematika (2012): *Toki-eremuko "Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua"*

zehazteko oinarrizko dokumentua. Gaztematikaren web orria:

<http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/99171/gaztematikaoinarria.pdf/09555d73-dbe9-40e9-966d-6f20be733f95>

- Gaztematika (2010): *Toki-eremuko "Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua"*

zehazteko oinarrizko dokumentua. Gaztematikaren web orria:

[http://www.gipuzkoagazteria.net/gestor/nodos/nodo\\_dok\\_din/DOKUMENTUA\\_euskaraz\\_1.pdf](http://www.gipuzkoagazteria.net/gestor/nodos/nodo_dok_din/DOKUMENTUA_euskaraz_1.pdf)

- UNIR: *Nociones de Psicología Evolutiva. Características generales de cada una de las etapas.*

<http://www.apuntesdepsicologia.com>

<http://memoria.fahce.unip.edu.ar>

<http://areaspsicologia.wordpress.com>

- Eusko Jaurlaritza: *Haurtzaroko eta nerabezaroko oinarrizko premien taxonomia eta horien ebaluaziorako adierazleak.* Eusko Jaurlaritzaren web orria:

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/balora/eu\\_doc/adjuntos/taxonomia%20adierazleak.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/balora/eu_doc/adjuntos/taxonomia%20adierazleak.pdf)

- Eusko Jaurlaritza (2014): *EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema. 2014ko eguneraketa.* Eusko Jaurlaritzaren web orria:

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_observ\\_infancia/eu\\_publica/adjuntos/ADIERAZLEEN%20TXOSTENA%2022102014.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_observ_infancia/eu_publica/adjuntos/ADIERAZLEEN%20TXOSTENA%2022102014.pdf)

- Soraluzeko Udalak emandako dokumentuak: Soraluzera etorri berrien harrera protokoloa, Euskararen egoerari buruzko txostenak, Soraluzeko Mapa Morea, Soraluzeko "Herrixak Hezi" proiektua.

- Ordiziako kale heziketa. Ordiziako Udalaren webgunetik:

<http://www.ordizia.eus/gizarte-ongizatea/familia-zerbitzua/211-kale-heziketa>